BEGIRADA AUSARTAK

Gay eta Lesbianen bizitza eta maitasun kontaketak
Frankismoan eta Trantsizioan Euskal Herrian

Iekukotasun berriak.2



Orain urte bi BEGIRADA AUSARTAK izeneko liburua aurkeztu genuen. Bertan, Frankismoa eta diktadura osteko lehen urteetan Euskal Herriko gay eta lesbianek bizi izandakoaren lekukotasunak bildu genituen, bai eta garai latz horren inguruan egindako azalpena eta azterketa ere. Orduan aitortu genuen bezala, atsekabetuta geunden lekukotasuna eskaini zutenen artean emakumeak oso gutxi izan zirelako. Hutsune hori emakume lesbianek jasan izan zuten, eta oraindik jasaten duten, bazterkeriaren ondorioz izan zela nabarmendu genuen, halaber.

Haatik poz handiz aurkezten dizkizuegu oraingoan emakume sorta batek emandako lekukotasunak. Pairatutako ukazioa behin eta berriro agertzen zaigu emakumeon hitzetan, baina baita, eta batez ere, emakumeen askapenaren alde egindako borroka ere; bereziki emakume lesbianen askatasunaren alde hartutako konpromisoa eta egindako borroka.

2016ko Uztailak

Egileak: **Inmaculada (Lala) Mujika**
Jose Ignacio Sánchez
Iñigo Bilbao
Amparo Villar

Edizio lanak: **ALDARTE**

Laguntzaileak: **Eusko Jaurlaritza**

Argitalpen hau nahi duenak, nahi bezala kopiatu, banatu eta erabali ahal izango du, egileen izenak aipatzen baditu eta ez badu erabilpena dirua egiteko baliatzen. Ezin izango da lan hau aldatu edo moldatu, ez eta beste idatzi bat sortu ere hemen dagoena oinarri hartuta.

AURKIBIDEA

Lekukotasunak.2 **4**

Asun Urbieta 5
Nati Rufo 14
Seti eta Yolanda 24
Marta Brancas 33
Lala Mujika 42

LEKUKOTASUNAK.2

ASUN URBIETA

- **Borrokan hasi ginenean gizartea eraldatu nahi genuen, ez genuen emakume heterosexualen parekoak izan nahi**

Asun Urbieta naiz ni, Errenterian jaio nintzen 1958 urtean eta une honetan 56 urte ditut. Gurea nahiko etxe arrunta zen, ohikoa. Ez nuke esango ezta erdi mailako klasekoak ginenik ere. Ia nire bizitza osoa herrian eman dut eta bertan segitzen dut gaur egun.

Frankismoaren azken urte haietatik gogoan dut, batez ere, beldur handia pasatzen genuela. Manifestazioz manifestazio ibiltzen ginen, polizien jazarpena gainetik kendu ezinik. 14 urte bete nituenetik gazte erakunde bateko kide izan nintzen. Garai hartan Errenteriako gazte *itxurazko* guztiak gurearen moduko gazte erakundetan edo nolabaiteko talde klandestinoren batean sartuta zebiltzanez, beldurrak jota bizi ginen etengabe. Baina beldurra bezainbestekoa zen ilusioa, den-dena egiteko zegoela uste baigenuen, den-dena irabazteko geneukala. Izan ere, ezer ere ez daukanak guztia dauka irabazteko. Franco bizirik zegoela, horretaz gogoratzen naiz batez ere, egun guztia konspiratzen ematen genuela. Franco hil zenean, nik 16 urte nituen.

Neskei umetan hasi nintzaien arreta handia jartzen. Moja-eskola batean ikasi nuen eta urtero, ikasturtearekin batera interesa piztuko zidan neska berriren bat heltzen zitzaigun gelara. Ikasgelaz aldatzea abentura ederra izaten zen urtero. Jakina, 4 edo 5 urtekin nik ezin nuen jakin arreta horrek zer adierazi nahi ote zuen. Neska haiek lagunak ziren niretzat, oso maite nituen lagun minak.

Lagunek mutilak zituzten hizpide, nik ez

Nerabezaroan kezkatzen hasi nintzen. Lagun guztiek mutilak zituzten hizpide. Nik baina, ez. Bost axola niri mutilak. Hasieran ez nintzen askorik larritu, uste bainuen denborarekin mutilak atsegin izango nituela. Seguru nengoen: hazitakoan ni gainerako neskak bezalakoa izango nintzen. Adin horretan ez neukan zergatik pentsatu behar ni berezia izan nintekenik, ezberdina. Berehala ohartuko nintzen akatsaz, konturatu nintzenean eskolako neskek mutilak baino ez zituztela gogoan, gaur bai eta bihar ere bai, eta nik berriz, neskak. Berehalakoan ohartu nintzen, halaber, neskazaletasun horren inguruko ezer ezin niola inori aipatu. 14 urteko neska ziztrina izanik, zer aipatuko nion inori? Ezer ez. Neska haiek lagunak ziren. Lagunak, ez besterik.

Maitasunaz, bizitzako beste hamaika gauzakin gertatu bezala, filmei esker ikasi genuen. Zineman maitasun istorioak ikusten nituenean, iruditzen zitzaidan pantailan ikusten nituen sentimendu haiek bazirela, gutxi gorabehera, lagun min haiekin neri gertatzen zitzaidanaren bezalakoak. Onartu behar dut, hala ere, adin horretan ez nuela galdu oraindik esperantza, halako batean gainerako neskak bezalakoa izango nintzenaren itxaropena. Garai batean oraindik gehiago korapilatu nintzen: ni neu mutila ez ote nintzen, duda sartu zitzaidan buruan. Gaitza arraroren batek jota egongo ote nintzen, hasi nintzen pentsatzen. Baina haizpa nagusiari lehenago gertatu bezala, hilekoa etorri zitzaidanean susmo txar guztiak uxatu nituen:

- Hilekoarekin ez dago dudarik. Emakumezkoa naiz, eta kitto.

Baina bai, denboraldi batez buruan sartuta izan nuen ez ote nintzen mutila izango. Kontuan hartu lesbiana bezalako hitzak ez zirela garai haietan aipatu ere egiten. Aipatu ere ez. Gizonezko batzuk *maritxu* ote ziren entzuna genuen, edo ospe handiko aktore hura arraro samarra ez ote zen ere bai. Hortik aurrera, ezer ez.

Feminismoarekin aurkitu nintzen ni

Esan daiteke ni galduta nengoela eta feminismoari esker aurkitu nintzela. Nagusitzearekin batera onartu behar izan nuen nik ez nuela erremediorik. Nire baitako sentimendu haiei izena jartzen saiatu nintzen eta etorkizunari begira planak egiten nituen. Bizitza, niretzat, denboraren kontrako lehia azkarra zen: Gazte nintzelarik ez zitzaidan ezer nabaritzen eta lasai nengoen. Arazoak geroago etorriko ziren, ezkontzeko ordua helduko zitzaidanean. Jakina zenez, emakume guztiok halabeharrez ezkondu egin behar baikinen. Nik 20 edo 22 urte nituen ordurako eta oso argi neukan ez nintzela ezkonduko. Bizitzan zer egin nik neuk erabakiko nuen. Pentsatu nuen asmo horiek guztiak nekez bete ahal izango nituela Errenterian. Inoiz ni neu izateko aukera lortuko Banu, Bartzelona edo Madril aldera joan beharko nintzen, hiri handian ez baininduen inork ezagutuko. Hiri handietan gainera, denetarik asko egonik, nire moduko bakan batzuk ere topatuko nituela pentsatzen nuen. Huts eginez gero ezkondu egin beharko nintzen eta, ez nengoen horretarako prest. Ezkondu baino hobe nuen neure buruaz beste egin. Beste aterabiderik ez nuen atzematen.

Urte haiek latzak izan zirela esan ohi dugu, gaua bezain ilunak izan zirelako. Hala ere, gaineratuko dut diktadurak izan zuela alde onik, gertatzen zitzaigun guztiaren errundunak beste haiek zirelako: Franco bera, zapalkuntza eta apaizak. Alegia, Franco zenaren erantzukizuna ziren baita ere, neroni gertatutako guztiak. Mugimendu femi-

nista gurera heldu zenean ikasi genuen bazirela horiek baino egia biribilagoak: emakumeok jasaten genuen zapalkuntza edo gure sexualitatearen ukazioa, esate baterako. Hasiera batean ez zen lesbiana hitza inondik inora aipatzen. Ez, nik 18 urte nituela; ez, ni neu nengoen tokian. Lesbiana hitza ez zen aipatzen.

Borroka politikoari esker heldu nintzen feminismora. 18 urte bete nituenean, nagusia nintzelakoan gazte erakundea utzi eta alderdiko kide egin nintzen. Eta alderdi hartan, emakume izanez gero, feminista izan behar zinen, nahi eta nahi ez. Atarramentu galanta izan zen hura niretzat. Garai hartan egin zen, gainera, gay mugimenduaren batzar handi bat. Ez dut ondo gogoratzen orain EHGAMek (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) egin ote zuen batzarra, edo COFLHEEk (Espainiako Estatuko Homosexual Askapen Fronteen Koordinadora). Bilera egin aurretik gay mugimendukoek agerraldia egin zuten kazetarien aurrean eta hara joan nintzen ni bakar bakarrik, inori ezer esan gabe. Bilera hartan entzun nituen lehenengoz nik entzun nahi nituen gauzak. Alegia: Ez geunden gaixorik eta ezer izatekotan, gu patriarkatuaren emaitza ginen. Oraindik ez ziren homofobia edo lesbofobia bezalako hitzak erabiltzen, baina horien guztien esanahiak iradokitzen ziren batzarkideen solasetan. Asteburu hartan ahaldundu nintzen ni, gaur egun horren ohikoa den hitza erabilita. Batzar hartan ikasi nuen nik nor eta zer nintzen. Ez nengoen buruko gaitzaren batek jota eta ez nintzen *locati-whisky* haietako bat. Emakumea nintzen, emakume lesbiana. Barruan izan nituen hamaika korapilo haiek askatuta, nire bizitzak ziaboga osoa egin zuen.

Hasteko koadrilako neska guztiekin hitz egin nuen, haiekin guztiekin zintzotu asmoz. Etsipen handia izan zen hura niretzat. Ez zidaten sinistu lesbiana nintzenik. Aldrebesa nintzela esan zidaten eta, hortaz, sexu kontutan ere, beti aldrebesa. Itxurak egiten ari nintzela aurpegiratu zidaten. Min handia egin zidan horrek. Uste izan nuen koadrilako neskekin zintzo jokatuz gero, ondo hartuko zutela. Bai zera! Ez dut horrekin adierazi nahi arbuiatu nindutenik. Ez horixe. Baina ez zidaten sinisten.

Etxekoekin ere hitz egin nuen, baina askoz ere beranduago. Urte dezente pasa ziren gure ama zenari egia esan nion arte. Eta etxekoekin behartuta zintzotu nintzen, handik egun gutxira telebistan atzeratzekotan nintzelako. Ez nituen etxekoak aztoratu nahi. Eta banekien hala gertatuko zela aurretik ezer jakin gabe telebistan lesbiana nintzela esanez ikusten baninduten. Ordurako 3 edo 4 urte paseak ziren lehenago aipatutako EHGAMeko batzarra egin zenetik. Errenteriako Emakumeen Asanbladan sartuta nengoen, buru belarri. Taldean 20 bat emakume izango ginen eta guztiek *ulertzen* zuten (lesbianak ziren, alegia). Koadrilan neu nintzen *ulertzen* bakarra, nahiz eta handik urte gutxira erdiak *ulertu* zuen.

Ohean ezagutu nituen nire moduko emakumeak

Ez dakit izango zen lotsatia nintzelako, edo ausartegia, baina neskatan egiten hasi nintzenean ezagutu nituen nire moduko emakume lesbianak. Ohean ezagutu nituen beste hainbat lesbianen berri emango zidaten emakumeak. Garai hartan ez zegoen lesbianen tabernarik neskatan egiteko. Zeuden bakanak gizon homosexualei zuzendutakoak ziren. Neskatan egiteko hortaz, herriko koadriletako emakumeei erreparatzen nien. Banuen nik seigarren zentzumen bat ulertzen zuten emakumeak nortzuk ziren asmatzeko, edota bikote ziren emakumeak atzemateko. Asanbladako emakumeek ere gure moduko gehiago ezagutzeko aukera aparta eskaintzen zidaten, haiek gure ingurukoak ez ziren emakume lesbiana ugari ezagutzen baizituzten. Hasiera batean herrian besterik ez ginen ibiltzen, Errenterian. Donostiara urte dezente beranduago hasi ginen joaten, giroko tabernak ireki zituztenean. Hasieran mutilen tabernetara joaten ginen, besterik ez zegoelako eta haietan beti aurkitzen genuelako galduta bezala zebilen emakumeren bat.

Baten batek galdetuko balu ea Errenterian zenbaterainoko onespena edo harrera ona genuen, ez nuke erantzunarekin asmatuko. Izan ere, gu Asanbladako kideak izanik, herriko eltze guztietako burruntzalia ere baginen eta beraz, borroka mundu horretako partaideak ginen. Errenterian indar handia zuten ezkerreko taldeek. Hamaika manifestazio egiten genituen, eta beste horrenbesteko liskar izaten genituen Poliziarekin. Ingurumari horretan emakume feministak edo emakume lesbianak ez ginen ezer berezi. Herrikoak ginen, besterik gabe. Jendeak bazekien, noski, gu lesbianak ginela. Danetarik zegoen herrian, gure izatea onartzen zutenak eta era berean, arbuiatzen gintuztenak. Betiere, gatazka politikoak horrenbeste baldintzatutako testuinguruan, jakina.

Arbuioa ez zen beti politikoa izaten. Herrian *astapotro* ugari zegoen eta haiei ezina egiten zitzaien gizonik gabeko emakumerik onartzea:

- Baina, nora zoazte zuek horren bakarrik?

Edo atximurkada egiten ziguten ipurdian, edo eskua sartzen, haien ondotik pasatutakoan. Gu beti taldean joaten ginen, hamar bat emakume gutxienez, eta liskarretan bukatzen genuen asteburururo herriko astapotro haiekin. Sekulako jipoi eta astinduak hartua naiz ni halakoetan. Ez pentsa, haiek ere egur dezente hartzen zuten. Erasoak ez ziren izaten gu lesbianak ginelako. Batzutan bai, baina gehienetan emakume ginelako oldartzen zitzaizkigun; batetik bestera gizonik gabe ibiltzen ziren emakumeak ginelako. Uste dut *astapotro* haiek jakin izan balute gu lesbianak ginela, pakean utziko

gintuztela. Konbentzituta nago horretaz. Hasieran sutu egiten ginen gizon haien jarrerekin. Denborarekin baina, ohartu ginen gu ginela halakoetan ernegatzen ziren bakarrak. Tipoak, ar sena puztuta, lasai asko geratzen ziren, harro-harro. Lelokeria haiek guztiak alboratzen ikasi genuen eta ez genien jaramon egiten astapotrokeriei. Ez dut horrekin adierazi nahi gure kontrako erasorik onartzeko prest geundenik. Hori ez. Baina gauak ondo pasatzeko zirela erabaki genuen.

Egia osoa aitortu behar badut, lesbianez betetako lagun talde horretan nik ez nuen ligatzen. Neskatan ahal nuen tokitan egiten nuen, beste askok bezalaxe. Egia da baita ere, urte haietan mugimendu feminista horren indartsu egonik, hamaika bilera, koordinadora eta enparau izaten genituela, eta haietan bildutako emakume andanarekin bai arrakasta izaten nuela. Garai batean gainera, gauza bitxi bat ere gertatu zitzaidan. Neu nintzen herrialdeko lesbianen artean aurpegia emateko prest zeuden bakanetako bat. Neu nintzen hortaz, Gipuzkoan ezagunak ziren lesbiana gutxi horietako bat. Alegia, edo nirekin ligatzen zuten, edo jai zeukaten. Pozarren nengoen, neu nintzelako emakume askorentzat aukera bakarra. Lesbiana ezagun gehiago baziren, noski. Baina ia denek neska-laguna zuten eta haiekin bai ez zegoela atarramendurik. Zorionez denborarekin gauzak lasaitu egin ziren eta gero eta emakume gehiago ausartu zen aurpegia ematen. Gaurko neska gazteei kostatuko zaie ulertzea orduko emakumeok zenbateraino geneukan barneratuta beldurra eta izua. Eta hala izan zen, mugimendu feminista egoera lasaitzera etorri zen arte. Gu, feminismoak emandako diskurtsoarekin hazi ginen eta horri esker lortu genuen barruko mamu eta beldur haiek guztiak uxatzea.

Ez genituen gune mistoak maite

Mugimendu feministan genbiltzan emakume lesbianok aspaldi ikusi genuen mugimenduaren beraren barruan berariazko talde bat sortzeko premia bazela. Gutako batzuk gay gizonekin lan egiten saiatu izan ginen talde mistoetan baina saioak huts egin zuen. Gune mistoak ez genituen maite, deseroso sentitzen ginen gizonekin batera lan eginez. EHGAMeko kideekin ondo moldatzen ginen, baina ez haiekin batera lan egiteko beste. Neronek eskarmentu ederra hartua nuen alderdian. Gizonekin batera lan egiteaz asebeteta nengoen. Zaila egiten zitzaigun EHGAMeko gizonekin lankidetzan aritzea. Afariren bat zela, manifestazioa edo beste edozein ekimen, gizonezkoek protagonismo osoa hatzen zuten. Edozer egiten genuela, beti jaun eta jabe izan nahi zuten. Taldean gay gizonak izan ohi ziren hizpide, eta emakume lesbianon arazoei ez zitzaien jaramon egiten. Nazka-nazka eginda, emakumeok geure taldea eratzea erabaki

genuen. Ordurako Madrilgo emakumeek taldea osatuta zeukaten eta gu ere, bide beretik, Lesbianen Kolektiboa eratzen hasi ginen. Herrialde mailako egitura egin genuen, hainbat udalerritako –Hernani, Errenteria eta Donostia, besteak beste– emakumeak gureganatzeko. Kolektbiora ez ziren mugimendu feministako emakumeak bakarrik etorri. Inoiz inon antolatu gabeko emakumeek ere gurekin bat egin zuten. Bi motatako bezeroak izan genituen: feminismotik zetozenak batetik eta, bestetik, feministak ez izan arren kolektiboko kide izateko prest egon ziren lesbianak. Emakume asko sartu ziren kolektibora pentsatuz bertan ligatzerik izango zutela, beraien moduko lesbianak ezagutuko zituztela edo gutxienez, bakardadea uxatzeko lagunak egingo zituztela.

Kolektiboan saiatu, saiatu ginen. Iruditzen zait feminismo larregi egin genuela, ez genekielako besterik egiten. Lan handia egin genuen, hori bai: diru apur bat ateratzeko, pegatinak, txapak eta aldizkariak saltzen genituen. Astunak ere baginen. *Albok*an, emakumeontzako Donostian zegoen taberna bakarrean sartzen ginen bakoitzean, ikusmin handia pizten genuen:

- Hemen ditun feministak!

Ez ziren gure zalerik handienak izango, baina ez zioten hutsik egiten guk antolatutako jaiei. Emakumeen Asanbladaren egoitzan egiten genituen festak eta bertan Gipuzkoa osoko lesbianak elkartzen ziren. Eta *E28*ko ospakizunen ingurumarian *Teni*sa alokatzen genuen bertan egundoko parranda egiteko.

Atzera begiratuz, ordukoak orain aztertuta, esango nuke feminismoa larregi landu genuela eta lesbianismoa, berriz, oso gutxi. Badakit garai hartako lesbianek begi onez hartzen gintuztela Kolektiboko emakumeak. Jatorrak ginelako izaten zen, ez feministak ginelako. Aitortu behar dut astunegiak ere izan ginela nahi baino gehiagotan. Horrela pentsatzen dut orain. Garai hartan hain geneukan argi den-dena egiteke zegoela, gure buruak, bai edo bai, egitera behartzen genituela.

Ikusgarritasun eza, gure akatsik handiena

Lesbianen Kolektiboaren egitekorik esanguratsuena gure burua ikusgarri egitea izaten zen. Lesbianak baginela ezagutu araztea, alegia. Horretan kale egiten genuen: Batzarretan ez genituen kazetariak ikusi ere egin nahi, eta argazkilariren bat agertuz gero, argazkia atzetik atera behar izaten zuen. Prentsaurrekoa eman behar genuenean ere, agerraldia nork egingo? Inork ez zuen aurpegia eman nahi. Edozer gauza

egiteko gure burua ezagutzera eman behar genuen. Hori hasteko. Bagenekien lesbiana agerikoa izatearen ordaina handiegia zela. Emakumeak ez ziren hala-hola ausartzen. Beldur handia zegoen.

Uste baino latzagoa izan zen beldur hori gainditzea. Are gehiago, esango nuke oraindik ez dugula osorik gainditu. Ezkontza Legea 2005 urtean onartu zen arren, lesbiana gehienak armairu barruan segitzen dute ezkutatuta. Hamar urtetan legeak ere huts egin du horretan. Ezagutzen ditut ezkondu ez direnak armairuaren barrunbeari eusteko. Esaten digute:

- *Jendeari bost axola nik zer egiten dudan, eta zer ez!*

Kolektiboa ez zen bakarrik hausnarketarako edo borrokarako tresna, bazen, baita ere, neskatan egiteko tokia eta horretan ibiltzen ginen, bakoitzak ahal zuen moduan. Alde horretatik mugimendua eremu egokia zen ligatzeko. Askoz lasaiagoa zen emakume lesbianontzat, hortik kanpokoak arriskuz beteta baizeuden. Kolektiboaren jaietan neska bat aldera ekartzen ahalegintzen zinenean eta hark ez bazuen zurekin nahi, ezezkoa lasaia izaten zen. Ez zegoen erasoen arriskurik. Errenterian, gainera, txoko bat eta guzti ireki genuen eta bertan otorduez gain sekulako festak egiten genituen. Futbol txapelketak ere aukera aproposa izaten ziren neska berriak ezagutzeko.

Eta arestian aipatu dudan bezala, beldurraren atzaparretan bizi ginen arren, ederki pasatzen, gozatzen eta disfrutatzen ere ikasi genuen. Berlinen izan ginen futbolean! Beti pentsatu izan dut umore bako iraultza, gorringo bako arrautzaren parekoa litzatekeela! Eskerrak umorerik ez zitzaigun falta. Errenteria herri bitxi eta bizia zenez, ez genuen aspertzeko astirik izaten. Batetik bestera ibiltzen ginen. Bidebietan festak zirela? Bidebietara joaten ginen bertako neskekin gau-pasa ederrak egitera. Gazte ginen, gazte. Eta Koordinadora bera aitzakia polita izaten zen hamaika toki eta emakume ezagutzeko: Gasteiz, Bartzelona, Madril… Orduko haiek gogoratzearekin bakarrik neka-neka eginda bukatzen dut. Nola zen posible horrenbesteko mugimendua?

Lesbianen Kolektiboa oso talde bizia zen. Gogoan ditut oraindik *Sorgiña* aldizkariaren harian Bizkaiko taldeko neskekin izaten genituen hika mikak. Aldizkariaren azalik zirikatzaileena nork aterako, hori izaten zen gure arteko lehia. Gipuzkoa izan zen txapeldun. Izan ere, hainbat hilabetez lehorte gordina sufritu genuen eta Bizkaian ur mozketekin hasi ziren. Egoera hartan Kolektiboko lau neska bainuontzian sartu eta aldizkariko azalerako argazki ezin politagoa egin genuen: *Ura aurreztu, lagunekin bainatu*. Eta bainuontziko lauon aurpegi alaiak ageri-agerian, hura izan hura berrikuntza. Bilbon gure garaipena onartu behar izan zuten.

Izan ere, agerian ibiltzea izaten zen lesbianon arazorik larriena. Gipuzkoan bazen talde bat, ni neu barne, arazorik ez zeukana aurpegia emateko. Baina hori ez zen ohikoa izaten. Hedabideetan atera ginenean, esaterako, *Pilon* atera zen lehenik, euskaraz, eta handik bi egunetara ni ETBn, gaztelaniaz. Urrusolok aurkezten zuen saioan izan zen. Zorigaiztoko saioa izan zen hura! Aurrez aurre lau astapotro jarri zizkiguten, eztabaidatzeko, baina haiekin ez zegoen modurik. Errua saioaren antolatzaileena izan zen. Liskarra bilatzen zuten, besterik ez. Saioarekin lesbianon bizimodua ezagutzera eman nahi bazuten, gutako lau edo bost eraman eta bakoitzari galdetzea besterik ez zeukaten. Baina ez, espektakulua nahi zuten eta lau zoro jarri zikiguten aurrean. Haien esanetan gu nazkagarriak ginen eta heriotza merezi genuen. Haiekin ez zegoen zer eztabaidatu. Gure burua ikusgarri egin nahi genuelako erabaki genuen saiora joatea. Urrusolorenak arrakasta handia zeukan ETBn eta jende askok ikusi zuen. Pentsa, bada oraindik ni ikusi eta programa hartatik ezagutzen nauen jendea. Benetan izan zen hura gogorra.

Hedabideekin bagenuen beste arazo larri bat. Gehienek guk maila pertsonalean hitz egitea nahi izaten zuten. Kolektibora deitzen zuten eta esaten ziguten: Bi lesbiana behar ditugu; bata ezkonduta egon dena, bi edo hiru seme-alaba dituena eta gaur, dibortziatuta, neska-lagunarekin bizi dena.

- Datozela bera eta neska-laguna, seme-alaba guztiekin.

Guk ezin genuen halakorik onartu. Lesbianen Kolektiboko kide ginen aldetik ez genuen geure bizimoduaz, geure bikote-lagunaz, geure maitasunaz hitz egin nahi. Guk feminismoaz hitz egin nahi genuen, patriarkatuaz, arau heterosexistaz eta enparauez. Hedabideek baina, saltsa nahi zuten, *pantojismo* hutsa. Guk ezezko biribila ematen genien:

- Gu emakume politikoak gara eta politikaz jardun nahi dugu.

Gaur egun mugimendu feministako kide gogotsua izaten segitzen dut. Gauzak iraganari begira aztertuta, aitortu beharko dut askoz hobeto bizi garela. Legez anormalak ez izatea, esate baterako, aurrera pauso izugarria izan da. Edozein erasoren aurrean gaur babestuta gaude eta ez da gutxi. Esango nuke legez berdintasuna erdietsi badugu ere, egunerokotasunean badirela oraindik zuzendu beharreko arazo ugari. Baina bai, gaurko neska gazteak askeagoak ikusten ditut, lasaiago. Iruditzen zait gure aldetik, nagusi garen emakumeon aldetik, egon daitekeela oraindik jarrera arazorik. Bizitzak kikildu egiten gaituelakoan nago. Gay gizon piloa ezagutzen dugu arlo ugarietan ardura publikoak hartu dituztenak. Non dira emakume lesbianak? Esan nahi dut, politi-

kan edo agintean, zenbat emakume ezagutzen ditugu, ageri-agerian *ulertzen* dutenak? Zenbat?

Egungo eztabaida politikoan, galduta

Aitortzen dut, bestalde, egungo eztabaida politikoan galduta bezala nabilela. Kide feminista izaten segitzen dut, eztabaida politikoei, gainetik bada ere, kasu egiten diet eta hargatik esaten dut, hain zuzen, *queer*tasunarekin erabat galdatu nagoela. *Trans* jendea gure bilera eta batzarretan izatea, gizonak direnak baina emakume, ez dut ulertzen. Batez ere nortasuna jartzen dutelako kolokan, feminismoaren subjetua, alegia. Subjetu feministarik egon ezean, feministok… zer? Erabat galduta nago horrekin guztiarekin.

Eta onartzen badut ere gaur erreferente gehiago baditugula, esan beharra daukat hainbat gauza ezin ditudala onartu. Gu borroka honekin hasi ginenean gizartea eraldatu nahi genuen, ez genuen emakume heterosexualen parekoak izan nahi. Besterik da ezkontza eta amatasuna bezalako xedeak erdiestea, hori bada lortu nahi dena. Guk ez genuen halakorik nahi. Guk gauzak eraldatu nahi genituen, egoera bera gainditu; ez saltsa hauetan sartu. Lesbiana batek haurdun dagoela esaten didan bakoitzean, sutu egiten naiz:

- Hi burutik jota hago! Jota, erabat!

Jende guztiak zoriondu egingo du, hori seguru. Nik ez. Ez nago batere ados. Eta noski, zorotzat hartzen naute. Baina pentsatzen dut zer hausnartu badugula horren guztiaren inguruan. Monogamia, ezkontza, familia eta enparauen atzaparretan erori gara. Guk ez genuen halakorik eskatzen, ez genuen halakorik nahi. Horrenbeste ezkontza eta umerekin nazkatuta nago. Ez ditut jasaten.

Donostian, 2015eko urrian

NATI RUFO

- **Emakume taldeetako kide gehienak lesbianak ginen arren, mugimenduan sekula ez genuen lesbianismoaz hitz egiten**

Nati Rufo dut izena. Elizak Maria Natividad Rufo bezala baitaiatu ninduen arren, ez da hori nire izena. 1953 urtean jaio nintzen. Gustura esango nuke Errenterian jaio nintzela baina, garai hartan gure herrian ez zegoen amaetxerik eta hortaz, herriko ume guztiekin gertatu modura, gure ama Donostiara joan behar izan zuen erditzera. Hori bai, harrotasunez azpimarratzen dut Errenterikoa naizela eta herrian bizi izan naizela ia beti. *Ia* esaten dut, zortzi urtez Lezo aldea ihes egin nuelako. Orduko neska-laguna bertakoa zen eta harekin bizitzera joan nintzen. Gure artekoa bukatu zenean baina, berriro ere etxekoak eta lagunak nituen txokora itzuli nintzen, gaur arte.

Frankismoan bizitzea egokitu zitzaizkidan urte haietatik gauza bakarra daukat gogoan, gaztea nintzela. Egia esan, besterik ez dut gogoratzen. Gaztea nintzen eta tutik ere ez nekien Frankismoaren kontrako borrokaz. 16 urte bete nituenean ikasketak utzi eta lantegi batean hasi nintzen lanean. Bertan izan nituen lehenengo loturak borroka politikoarekin eta, nire zoritxarrerako, *txapel okerrekin* (guardia zibilak) ere bai. Ordura arte, auzoan bizi nintzela, ume bat nintzen, hazi nahi ez zuen neskatoa. Nik ez nuen titirik eduki nahi. Lagunekin jolasean ibiltzearekin nahikoa neukan pozik egoteko. 15 urtekin hilekoa etorri zitzaidan arte, umetasunari gogoz lotuta bizin izan nintzen. Hori bai, lanean hasi eta munduari buruz neukan ikuspegia goitik behera aldatzea, bat izan zen.

Lantegian gogoz egiten nuen lan. Beti izan nahiz langile fina. Hasieran, artean inongo egitura edo borroka politikoan sartu gabe nengoela, herriko jende ugari ikusten nuen manifestazioetan eta Poliziarengandik ihesean. Izugarria zen jendea korrika ikustea, kalean gora eta kalean behera, Poliziaren *jeep*ak atzetik zituztela. Frankismoak eragindako izua agerikoa zen gure herriko kaleetan. Gogor eta gogoz saiatzen ziren Segurtasun Indarrak herritarren asaldatzeak eta gorritasunak zapuzten.

Ordurako nik banekin homosexualitatea eta, ondorioz, lesbianismoa, legez jazarrita zeudela. Eta, zoritxarrez, gizartearen aldetik ere bai. Eskerrak ni neu ez nintzen lesbiana eta hortaz, ez nintzen horregatik askorik arduratzen. Lege bat bazegoen, Nagien eta Gaizkileen Legea, homosexualitatearen kontrako jazarpena arautzen zuena, baina hori garai hartako legedi zapaltzailearen barruko beste bat besterik ez zen. Ares-

tian aipatu dudan moduan, artean iratzarri gabe negoen ni eta, horrexegatik, ez nintzen askorik arduratzen.

Senargaia hartu nuen eta baita harekin ezkondu ere

Sasoi hartan ohikoa zenez, neuk ere senargaia hartu eta nik 16 urte bete nituenean gu biok ezkondu egin ginen. Ezkongai-aldia eta ezkonduta egon ginen denbora kontutan hartuta, bost bat urte eman genituen elkarrekin, senar-emazte bezala urte eta erdi bakarrik egon ginen arren. Senarra Valladolidekoa zen eta ni Errenteriakoa. Aitortzen dut ez ginela ondoegi moldatzen, baina hain ginen gazteak ez genekiela hori ote zen ezkonduta egotea, edo gauzak horrela izan behar zuten, nahi eta nahi ez. Izan ere, senargaiarekin hasten zinenean inork ez zizun esaten harremana nolakoa behar zuen izan. Bizitza bera zen gure eskola bakarra eta ezkonduta egotea eta inoren emazte izatea bizitzaren ikasgaietako bat izaten zen.

Ezkondu eta urte betera lantegiz aldatu nuen. Enpresa berriak aurrekoak baino ospe handiagoa zuen, eta baita soldata hobea ere. Bertan ezagutu nuen nire bihotza bahituko zuen emakumea. Nik ezin nuen ulertu zer gertatzen zitzaidan; bakarrik nekien pozarren nengoela haren ondoan. Sabela pinpilinpauxez beteta neukan. Orduan konturatu nintzen emakume harenganako sentimenduak sendo-sendoak zirela, senarrarengana nituenaren antzekoak, handiagoak ez baziren. Horrela hasi zen, ustekabean, neure bizitza lesbianoa. Ez zen samurra izan. Orduko ume guztiek bezala nik ere hezieta katolikoa jasoa nuen eta Elizaren aurreiritzi guztiak neure eginak nituen. Garai hartan katoliko praktikantea nintzen oraindik. Oso praktikantea. Senarra eta biok astero joaten ginen gure parrokiako On Jesusek ematen zituen hitzaldietara. Lau bikote batzen ginen auzoko apaizarekin bizitzari buruzkoak astertu asmoz. Senar-emazte bizitza Elizaren barruan nola garatu ikastea zen hitzaldion helburu nagusia. Apaizak hainbestetan esan zigun elkarri maitatzea zela Jesusek utzitako agindurik handiena, azkenean horixe bera egitea erabaki nuela:

- Elkarri maitatu behar diogu, guk emakumeok!

Hitzaldi haietan ikasi nuen lantokiko emakume harenganako nituen sentimenduak zuzenak behar zutela izan, Elizaren esanetan Jesusek berak agindu baizigun elkarri maitatzea. Nik neska hura maite nuen, nire maitasuna mugatua eta baldintzatua bazen ere. Hark gehiago nahi zuen nirekin eta nik ezin nion gehiago eman, jakina. Senarra etxean neukan. Gure arteko harremana piskana-piskana zapuztuz joan zen: futbola, telebista… senarraren edozein atzakia ona zen nire bihotzeko Asunen etxera joateko.

Lagunak ginen munduarentzat, lagun minak. Minegiak esango nuke nik, haren etxean gurean baino ordu gehiago emateko. Senarrarenganakoak egin zuen, halabeharrez egin gainera.

Gizona lur jota geratu zen. Familia guztia Valladoliden bizi zen eta neu nintzen Errenterian zeukan euskarri emozional bakarra. Hunkigarria zen oso etxera heldu eta senarra tristurak jota sofan hondoratuta aurkitzea. Ez dut esango hura bezala ni ere pot eginda nengoenik, baina bai oso gogorra egiten zitzaidala senarra horrela ikustea. Ez nuen inor mindu nahi, baina bai etxekoek aintzat hartzea emakume harenganako nituen sentimenduak. Gertatutakoaz amarekin hitz egin nuenean, zera esan zidan:

- *Ez al din pena ematen mutil gizajoak?*
- *Ama, nik ezin diot jada ezer eskaini.* –eranzun nion.

Azkenean ulertuko bazidan, gogor egin behar izan nion amari:

- *Bera suhia duzu eta ni berriz, alaba. Ni ere lur jota naukazu. Ez dut inor mindu nahi, eta are gutxiago horrenbeste maitatu izan dudan gizona. Eta zure aurrean negarrik egiten ez badut ere, malko dezente bota ditut bakardadean*.

Etxeko gainerako guztiei ere gogor egin behar izan nien ulertu eta onartu zezaten:

- *Orain arte senarrarekin etorri natzaizue, aurrerantzean neska-lagunarekin etorriko naiz. Ez baduzue onartu nahi, ez nauzue berriro ikusiko eta bake santua guztiontzat.*

Hor bukatu zen dena. Amak arazorik gabe hartu zuen etxean neure bikote berria. Neba biekin ere hitz egin behar izan nuen. Senar ohia adiskide zuten eta hura zergatik utzi nuen jakin nahi zuen. Haiekin oso-oso argi hitz egin nuen: *Emakume batez maitemindu naiz eta gizonari min handiagoa egin baino lehen, zentzuzkoagoa zen gure arteko harremana bertan behera uztea*. Hor bukatu zen nire senarra etxekoentzat. Handik aurrera Gabonetako afarietara edo etxean izaten ziren familia ospakizun guztietara, unean uneko neska-lagunarekin joaten nintzen eta inoiz ez zuen inork muturra zimurtu.

Bakarrak ginela uste genuen guk

Une horretatik aurrera ni libre sentitu nintzen oso. Kalean besotik hartzen nion neska-lagunari, loreak oparitzen nizkion, elkarrekin herri osoa zeharkatzen genuen bizikletaz… Ni seguru nintzen munduan gu biok ginela elkarri maite zioten emakumezko bakarrak; beste inori ez zitzaiola halakorik pasa. Garai hartan ez genuen Errenterian

emakume lesbianik ezagutzen. Gerora jakin nuen hainbat hilabetez herriko guztien ahotan egon ginela gu biok.

Behin gure egoera berean zeuden emakumeak ezagutu nahi genituela aipatu nion norbaiti. Ez dut gogoan norekin ari nintzen hizketan baina solaskideak Donostiako Emakumeen Asanbladakoekin harremanetan jarri gintuen. Hor ezagutu genituen estrainekoz gure modura lesbianak ziren emakumeak. EHGAMeko jaietan ere emakume gehiago ezagutu genituen. Errenterian lesbiana mordoa bizi zen eta guk ezer jakin gabe. Sekula ez ninduen arduratu neska batekin ibiltzeak; inoiz ez nintzen larritu lesbiana izateagatik.

Urte haietan, Bizkaian, gertaera larri bat izan zen. Hamaika emakume abortuak egin izana egotzita atxilotu eta epaitu egin zituzten. Euskal Herri osoko feministak zutik jarri eta protestan hasi ziren. Errenterian ere kaleak hartu genituen. Orduan izan nuen lehenengo hartu-emana mugimendu feministarekin. Neska-lagunak eta biok epaitutako emakume haien aldeko borrokan engaiatzea erabaki genuen. Lan elkarrekin egiten genuenez, halako batean baimena eskatu eta lankide batekin batera Bilbora joan ginen epaiketaren kontra deituta zegoen elkarretaratzera. Hainbat eta hainbat protestalditan parte hartu genuen, hori bai beti gure kasara eta feminismoa bizitzeko genuen modu bereziarekin.

Bete-betean borroka feministan

Bilboko epaiketa bukatu zenean bete-betean sartu nintzen Erreteriako Emakumeen Taldean. Borroka feminista zoragarria izan zen niretzat. Hainbeste emakumekin batera protestan aritzea aparta izan zen niretzat, bikaina. Gaztetandik bihurri samarra izan nintzen. Ordura arte baina, ez nintzen gai izan jarrera erreboltari hori inondik bideratzeko. Herriko taldean emakume ugari ezagutu nituen eta haiekin guztiekin ikasi nuen feminista izatea zer zen. Pozarren nengoen. Hori izan zen nire lehenengo borroka esperientzia. Bost axola zitzaidan herrian neska-lagunarekin bestoik hartuta ikusten baninduten. Inoiz ez naiz lotsatu nintzena izan eta horren arabera bizitzeagatik. Herrikoek zer esango zuten, neri bost. Ez nintzen arduratzen. Besterik zen jakina, unean uneko neska-lagunak zer pentsatuko zuen. Beti zegoen aitzakiaren bat: Ez, esaten zidaten, *kuadrilakoek ikusi egingo gaituzte, mutil-lagunak harrapatuko gaitu*… Egia esan behar badut, jasanezina egiten zitzaidan hainbesteko epelkeria. Ixildu eta aintzat hartu beharra neukan baina. Urte haietan bi emakumek ausartak behar zuten izan eskutik hartuta joateko; piska bat berekoia eta… inozoa ere bai. Ez dakit bada! Nik

maitasunez egiten nuen. Hargatik neska-lagunaren errefusak min egiten zidan. Minak min, hala ere, besteak ez bazuen inork ikusterik nahi, nik onartu besterik ez neukan.

Inoiz ez genuen erasorik sufritu. Gehienez jota irainen bat bota ziguten kaletik gindoazela. Jakina, ez ziguten *lesbianak* esaten, artean hori zer zen ere ez baizekiten. *Tortilerak* deitzen ziguten. Horrek ez ninduen kezkatzen. Umetan ere *mari-motrailu* deitzen zidaten eskolako ikaskideek eta ohituta nengoen halakoak entzuten. Panpinekin jolastea atsegin ez nuelako deitzen zidaten. Eta zertan jolasten nuen? Baloiakin, futbolean… txiki-txikitandik mutilen jolasak izan nituen gogoko. Eta jolas-orduan senar-emazteak izatera jolasten bagenuen, ni beti senarra izaten nintzen. Gainontzeko neskek beti aukeratzen ninduten beraien senarra izateko. *Mari-motrailu* deitzen zidaten, gehienetan mutilekin egoten nintzelako. Egia esan behar badut, ez nuke jakingo horrek nigan eraginik izan zuen, edo ez. Ez ninduen horrek askorik arduratzen. Uste dut umetan bai mintzen ninduela, mintzeko esaten zidatelako eta umetan inori ez zaio gustatzen irainik jasotzea.

Senargaiarekin ibili nintzen bitartean, harekin baino ez nintzen ibiltzen. Hutsaren hurrengoa izan zen nire bizitza, bai horixe. Neska-lagunarekin berriz izugarri disfrutatu nuen eta ingurumari feministan sartu nintzenean, oraindik gehiago. Beste taldeetako emakumeekin egiten genituen bilera eta batzarrak ez ziren izaten lan egiteko bakarrik. Guretzako oso garrantzitsuak izaten ziren topagune haiek. Ordurako erraietan sustraituta geneukan feminismoa, bizitzari buruzko askoz ikusmolde irekiagoak genituen: ondo genekien zer nahi genuen eta nolakoak izan nahi genuen; bizitzan zer egin nahi genuen eta zeintzuk gauzak jarri nahi genitun hankaz gora. Larunbatero izaten genituen bilerak Euskal Herri osoko zein Estatuko taldeetako emakumeekin. Berdin zion Errenterian edo Eibarren egon, berdin gerraren kontra edo amnistiaren alde, beti-beti disfrutatzen genuen egindako lanarekin. Bateko zein besteko kanpainak antolatu behar genitunean, Hernaniko, Eibarko edo Oinatiko jendea ezagutzen genuen, eta plazarra zen haiekin lan egitea. Borrokak bazituen une oso latzak, baina esan bezala, baita oso-oso dibertigarriak eta hunkigarriak ere.

Topaketetan izugarri ligatzen zen

Emakumeen batzar guztiak ligatzeko aukera paregabea izaten ziren. Estatu mailako topaketak berriz, ezin hobeak izaten ziren, paregabeak. Gogoan dut Galizian egin genuen batzarra. Launaka sartu ginen ohetan. Batzarra antolatu zuten kideak txundituta zeuden. Ez zuten ulertzen nola zen posible horrenbeste ohe hutsik egotea. Halakoe-

tan ligatzeak bazuen, hala eta guztiz ere, bere alde ez hain ona. Izan ere, Bartzelonako neska batekin ligatuz gero, emakume hura ez nuen hurrengo urtera arte berriz ikusiko eta oherako ez ezik, beste zerbaiterako hartu banion gogoa, azkenean gogaikarriak izaten ziren hura ikusteko egin beharreko bidaiak. Hasi bezala amaitzen ziren harremanak, ez baizuten gehiagorako ematen. Horregatik gertuko herrietako neskekin ligatzen hasi nintzen. Batzarrean ezagututako emakumea biharamunean ere ikus nezakeen horrela, hurrengo urteko batzarraren zain egon gabe.

Talde feministek antolatutako jaiek ere aukera paregabea eskaintzen zuten neskatan egiteko. Betiko geratu zaizkit gogoan martxoaren 8ko ospakizunen harira hiru urtetan egindako jaiak. Itzelak izan ziren. Ondo txukundu eta apaindutako frontoietan egiten genituen festak: hasteko afaria izaten zen eta ondoren, dantzaldia. Bertatik botatzen gintuzten arte egoten ginen jira eta buelta. Halako festetan feminismora lotzen ez ziren emakume ugari ezagutzen genituen. Ez ziren borrokara ausartzen eta festak haientzako bestelako lesbianak ezagutzeko aitzakia izaten ziren.

Ni bete-betean nengoen Errenteriako Emakumeen Taldean eta Donostiako Asanbladan. Hasiera batean taldeotako kide guztiak, edo ia guztiak, lesbianak ginen. Hala ere, gure batzarretan ez genuen inoiz lesbianismoaz hitz egiten. Inoiz ez. Horrek egonezina eragiten zuen taldeotako hainbatengan. Egunero ari ginen abortuaren alde, dibortzioa aldarrikatzen, patriarkatuaren kontra… Hori guztiori ondo zegoen, baina gu, emakume lesbianok, hutsune nabarmen bat sentitzen genuen bete behar genuena. Guk geuk bete beharko genuen, hutsune hori inoiz beteko bazen. Beste inork ez zuen egingo. Hargatik, Donostiako Emakumeen Asanbladan batzordeak antolatzen hasi zirenean –erasoen kontrakoa, abortuaren aldekoa, eta abar–, guri ere ordua heldu zitzaigula pentsatu genuen. Hainbat gogoeta egin eta gero, erabaki genuen, dena den, lesbianismoak ezin zuela izan Asanbladako beste batzorde bat. Pentsatu genuen onena izango zela Asanbladaren barruan bai, baina guk gure erakundea sortzea, autonomia osoz jardungo zuen Asanblada barruko egitura, alegia. Horrela sortu zen Lesbianon Kolektiboa.

Lesbiana Feministen Kolektiboa

Kolektiboa oso esperientzia aberasgarria izan zen gu guztiontzat. Lan handia egin genuen, teroia mailakoa batez ere. Orduak eta orduak eman genituen *butch* eta *femme* izakeren inguruan eztabaidatzen, luma urdinaz eta luma arrosaz, eta sakon aztertu genituen Alemaniako zein Estatu Batuetako lesbiana teorilarien gogoetak, haiek gu bai-

no askoz ere aurreratuagoak baizeuden. Ikasteko irrikitan geunden eta oso eztabaida sakonak izaten genituen zer ginen, zergatik eta zertarako ikasi nahian. Horrek guztiak garrantzia zeukan guretzat. Astun samarrak ere baginen hainbesteko teoriarekin. Oso politikoak ginen, aldarriak bilatzen zituzten borrokalari politikoak. Emakume asko izan ziren taldean sartu eta egoera kusita berehalakoan hanka egin zutenak. Azkenean betiko lauak geratzen ginen. Eta hori bazen arazoa, taldea ez zelako handitzen eta beti aurpegi berberak ikusten zirelako. Gaur egun bezala, orduan ere egundoko garrantzia zeukan lesbianon mugimenduarentzat gure burua ageriko egitea. Hil ala bizikao zen. Egungo gazteei zaila egingo zaie ulertzea baina, manifestazioak egiten genituenean izugarrizko arazoak izaten genituen pankarta nork eramango zuen aurkitzeko. Eta hedabideek gurekin hitz egin nahi zutenean, berdin. Betiko biak agertzen ziren prentsan.

Izaten ziren, bestalde, taldera nor bere arazoak konpontzera etortzen zirenak, pentsatuz bertan neska-laguna aurkituko zutela. Emakume asko etorri zitzaizkigun asmo horrekin. Neskatan egin asmoz etortzen ziren, baina ikusten zutenean hor barruan politikaz baino ez genuela hitz egiten eta lan handia egin behar zela kartelak jartzen edo pankartak egiten, hanka egiten zuten arrapaladan. Kezkatuta geunden eta pentsatu genuen horretaz guztiaz hausnarketa egin beharko genuela: taldera neska berriren bat sartzen zen bakoitzean, uxatu egiten genuen. Gerora haietako batzuk beste tokitan topatu izan genituen eta konturatu ginen, zorionez, ez geniela kalterik egin. Ziren bezalakoak ziren, eta berdin-berdin segitzen dute.

Jaiak, hain zuzen, halako emakumeentzat antolatzen genituen. Guk ondo pasatzeko, jakina, baina batez ere lotsatuta edo kikilduta egon zitezkeen emakume haiek guztiek neskatan egiteko aukera eduki zezaten. Asmo horrekin egiten genituen. Jaiak emakume guztiei zuzenduta egoten ziren, ez bakarrik emakume lesbianei. Nik, adibidez, ez dakit ligatzeko beste lesbianen atzetik ibiltzen nintzen, edo ez. Gauza da halako jaietan ustez heterosexualak ziren emakumeekin bukatzen nuela beti. Niretzako garrantzitsuagoa zen emakumea ederra eta azkarra ote zen, lesbiana izan edo ez. Beharbada txiripa izango da baina nik neuk hiru edo lau emakume heterosexualekin amaitu nuen. Eta ez nintzen batere promiskuoa. Beti izan dut bikote egonkorra eta neska-lagun bakoitzarekin urte askotako harremana izan dut beti.

Errenterian, gainera, oso esperientzia polita izan genuen *Casiopea* izeneko txokoaren inguruan. Jakina denez, emakumeok galarazita geneukan ohiko txokoetan sartzea. Herriko *astapotro*ekin ika-mika ibiltzeaz nazkatu ginenean, gure txokoa irekitzea erabaki genuen. Ez dakit nola egiten ditugun gauzak, baina txokoarenak ere ez zuen luze iraun. Hori bai, iraun zuen bitartean arrakasta handia izan zuen. Urte batzuk egin

genituen txokoarekin eta oso esperientzia atsegina izan zen. Ez dut inoiz ahaztuko herrian izan ziren uholde batzutan, erreka bere bidetik atera zenean, urak txokoaren barruan harrapatu gintuela mozkor-mozkor eginda.

Ezkontzak gainditu egin gintuen

Lesbianen Kolektiboaren azken urteak gogora ekarrita, buruan daukat egundoko eztabaidak izan genituela ezkontzaren inguruan. Talde mistoak eta gay mugimendua hasiak ziren ordurako ezkontza eskubidea aldarrikatzen. Guk ordu dezente eman genituen eztabaidan erabakizeko guk ere ezkontzaren aldeko aldarria egingo ote genuen, beste hainbat aldarrien artean, edo, aitzitik, gure borroka banako eskubideen aldekoa izango zen. Pentsatzen genuen banakako eskubide oro emakume guztien eskubideak ere bazirela, gu guztion bizimoduan eragiten zutela gutako bakoitzaren egoera zein zen hartu gabe, ezkonduta geunden edo ez, umerik bagenuen edo ez. Egia esan, eztabaida Kolektiboa bera pattal samar zegoela heldu zitzaigun, Asanblada barruan militantzia eta konpromiso mailak inoiz baino apalagoak zirenean. Ezkontzari buruzko eztabaidaren zurrunbiloak harrapatu eta bertan ito egin ginen.

Egoera gaur, 2015 urtean, irekiagoa dela iruditzen zait. Dudarik ez daukat. Hori bai, uste dut oraindik lan handia dagoela egiteko. Beste askok bezala, neuk ere pentsatzen dut agian geldiune bat egiteko unea heldu dela, gu guztion lehentasunak zeintzuk behar duten izan aztertu eta erabakitze aldera. Egun daukagunarekin ez bainago konforme, ez da hori gu borrokara eraman gintuena. Badakit sartuta gauzkaten zurrunbilo honetatik ateratzea ia ezinezkoa dela. Ahal balitz, gustura aterako nintzateke. Azkarregi goazela iruditzen zait, ematen dugun urrats bakoitzari buruz askorik hausnartu gabe. Den-dena egina eman digute. Batetik emakume dezente ikusten ditut ezkontzeko irrikitan eta bestetik lesbiana piloa beraien lesbianismoa patxadaz bizi dutenak, inori azalpenak ematen ibili gabe, ezkutatu gabe eta, era berean, beraien burua aldarrikatzeko inolako asmorik gabe. Hor daude, lasai asko gainera, herrian edo lantokian ikusten ditugu, lesbianak badirela lotsarik gabe adierazten dute, baina ez dute horren inguruko lan politikoa egiteko beharrik ikusten. Iruditzen zait halako asko dagoela gaur egun.

Eta argi eta garbi esan behar dugu gazteek egoera hori bizitzea lortu badute lehenago beste batzuk bidea egin genielako izan dela. Gure borrokak eman die libre izateko aukera. Gure etxean, esaterako, familia erdia lesbiana edo gay da. Ni lehena izan nintzen, antza, baina baditut hainbat iloba mutil-laguna eskutik hartuta, luma dariela fami-

lia ospakizunetara etortzen zaizkigunak. Beraiek beste ikuspegi bat daukatu izate homosexualaz. Gazteak borrokarako asmorik gabe ikusten ditut, ezer aldarrikatzeko gogorik gabe, bizitza errebeldiaz gozatzeko premiarik gabe, eta horrek kezkatu egiten nau. Gazteon utzikeriak benetan kezkatzen nau.

Donostian, 2015eko urrian

SETI ETA YOLANDA

Seti eta Yolanda 1977 urtean ezagutu zuten elkar. Geroztik bizitzaren zati handi bat, sentimenduak eta pozak partekatzeko aukera izan dute. Garai haien gaineko testigantza eta lesbianen borrokaren gaineko oroitzapen sozial eta politikoak ere elkarrekin eman nahi izan dituzte.

- **Izan zen arinkeria osoz gu zer ginen esatera ausartu zenik, guk geuk oraindik zer ginen oso garbi ez genekienean**

Bilboko Zazpi Kaleetan ezagutu genuen elkar, 1977 urtean. Garai hartan auzoko kaleak kuadrilez beteta egoten ziren gau eta egun. Kuadriletako guztiok ezagutzen genuen elkar. Ez zen arraroa. Gure alderdian ez zegoena, ondokoan zegoen, edo sindikaturen batean. Poteoan bakarrik ez, ia egunero bat egiten genuen manifestazio edo hitzaldietan. Kuadrila guztiek Zazpi Kaleetan amaitzen genuen eta auzoak herri txiki baten itxura hartzen zuen non, guzti-guztiok elkar ezagutzen genuen. Kuadrila haiek askotarikoak ziren eta haien artean oso modu naturalean nahasten ziren. Gu biok manifestazio baten ostean ezagutu ginen, gure kuadrilak Zazpi Kaleetako poteoan elkartu zirenean. Guztira ideologia eta alderdi askotariko 60 lagun baino gehiago ginen, Santa Maria kalean, elkar ezagutu genuenean.

Gure kuadrilak kalean bizi ziren, ez oraingo gazteak bezala. Badirudi oraingo neska gazteek higuina diotela kalean ibiltzeari. Guk berriz kalean pasatzen genuen egun osoa, kaleak hartzen genituen eta kalean disfrutatzen genuen. Goizetan auzo bateko tabernatan batzen ginen, arratsaldean bestekoetan eta gauean berriz, ahal genuen tokietan. Beti kalean, hori bai. Egunero ateratzen ginen eta egunero egiten genuen lan edo ikasi, bakoitzaren arduren arabera.

Nik ez nuen uste lesbiana nintzenik

Garai hartan nik ez nuen uste lesbiana nintzenik. Emakume batekin nengoen txoratuta, baina emakume zehatz horrekin nengoen ni maiteminduta eta hura nuen atsegin, ez beste guztiak. Neure burua aurkeztu beharko banu, bisexuala nintzela esango nuke. Izan ere, gizonekin oheratzen nintzen, baina neure bihotza emakume harena zen. Ez nion arazorik ikusten balizko kontraesan horri. Egia esan, une hartan ez nuen ezagutzen emakumeekin oheratzen zen andrazkorik. 1975 urteaz ari naiz, jakina. Eredu ezagunik ez zegoen oraindik. Gure moduko neskak kuadrilatan ezagutzen geni-

tuen. Gustuko genuen baten bat ikusitakoan, harengana hurbildu, berbetan hasi eta gauzak ondo egokituz gero, harremanean hasten ginen. Ez ginen larregi arduratzen horregatik, eta ez genuen pentsatzen neska batekin edo bestearekin ibili izanagatik ezer berezi ginenik. Normala zen, beste barik. Denborarekin nire ahizpei aipatu nizkien harreman horien ingurukoak eta haiek ere ez zuten eragozpenik jarri. Gurasoengandik jasotako heziketagatik izango zen, baina gurean inor ez zen asaldatu ni neska batekin ikusi nindutenean. Ezagutu ditugu etxean ezin zutenak halakorik aipatu ere egin, jazo zitekeenaren beldur zirelako. Emakume askok lagunik minenei bakarrik aitortzen zieten neska batekin zebiltzala.

Beharrean ere norberaren intimitatea oso modu naturalean bizi genuen. Garai haietan ez zegoen arazorik lankideen aurrean lasai asko botatzeko:

- Neska batekaz nabil txoro-txoro eginda.

Zentzu horretan aipatu behar dut gu geu lesbianak ginela onartzeko, berebiziko garrantzia izan zuela Lanbroa elkarteak. Gu elkarteko kide ez ginen arren, maiz joaten ginen Santi Mami kalean zeukaten egoitzara. Bertan ezagututako emakume batzuk Lanbroako kideak ziren eta beste asko, gu bezala, gogaideak baino ez. Baina egoitza hura oso topagune interesgarria egiten zitzaigun guztioi, bertan askatasun osoz berba egiteko aukera izaten genuen eta. Bertan ezagutu genuen, esaterako, zeukan solasarekin gu guztiak aho zabalik uzten gintuena adineko emakume bat.

Hari esker jakin genuen Miarritzen bazela emakumeok neskatan egiteko taberna bat. Aho zabalik entzuten genion emakume hari. Ez zitzaigun buruan sartzen halako tabernak inon egon zitezkeenik eta oraindik gutxiago Euskal Herrian. Lanbroako kideei esker, gainera, garaiko zinema ikusteko aukera izan genuen eta filme haiei esker ikasi genuen munduan bazirela emakumeak maitatzen zituzten gu bezalako emakumeak.

Guk gay mutilak ikusten genituen eta ezin genuen sinetsi zelan egiten zuten ligatzeko. Edozein kale bazterretan ibiltzen ziren mutilen ehizan eta txortan ere, ez edozein bazterretan, baina kasik hala egiten zuten: kaleko komunetan eta *Balcon de la Lola* bezalako tokietan, alegia. Sinesgaitza egiten zitzaigun guri. Guk ez geneukan kalean ligatzeko modurik. Ezta pentsatu ere. Egia da 80. hamarkadan gauzak dezente aldatu zirela guretzat, emakume lesbianok gure artean ezagutzeko moduko jazkerak eta orrazkerak ohikoak egin genitunean. Baina Franco hil eta hasierako urte haietan oso gaitza izaten zen emakume bat lesbiana izan zitekeela ikustearekin bakarrik atzematea.

Bilboko lehenengo *escrache*a

Praka bakeroekin, kamisetakin eta kaskamotzakin, dena aldatu zen. Ezin dugu ahaztu, esaterako, Paco Romano kazetariarekin izan genuen liskarra. Gizon hari egin genion, Bilbon inoiz egin zen lehenengo *escrache*a. Bitxia ere izan zen jazotakoa. Behin hainbat lagunekin partekatzen genuen etxebizitzan geundela ilea moztea okurritu zitzaigun, kaskamotz utzi arte. Itxura horrekin joan ginen *Crazi Horse*ra, Henao kalean zegoen pub batera, kopa batzuk hartzera. Bertan Romerorekin egin genuen topo. Kazetaria zela esan zigun eta ustekabean hainbat galdera egin zizkigun. Eta guk erantzun. *Crazi Horse*, artean, bikote heterosexualen tokia zen, geroago emakume lesbianok hartu eta geure egingo genuena. Gu gauero ateratzen ginen eta gau hartan ere kopa batzuk hartu asmoz sartu ginen bertara. Pentsatzen dut Romerori xelebre egingo zitzaiola gure piura eta gure jarrerak, inolako lotsarik gabe emakumeok halako musuak ematen genizkiolako elkarri. Gauza da handik egun batzutara orri osoko artikulua idatzi zuela *Diario 16* egunkarian: *Bilbon ere badira lesbianak. Kaskamotz eta aldarte txarrekoak dira guztiak*. Sutan jarri ginen hura irakurritakoan. Egunkariaren ale mordoa hartu eta egunkariaren egoitzara joan ginen protesta egitera. Garai hartan ez zegoen gaurko segurtasun neurririk eta arazorik gabe Romeroren bulegoraino sartu ginen. Hor bertan aleak txikitu, lurrera bota eta su eman genien. Romerok bere aldetik, kristonak eta bost entzun behar izan zituen.

Orduan konturatu zen egindako akatsaz. Hanka biak sartu zitula ohartu zen. Gizonak ondo ezagutzen zuen kalea eta arinkeria osoz gu guztiak zer ginen esatera ausartu zen, guk geuk oraindik zer ginen oso garbi ez genekienean. Egun haietan gizon homosexualen inguruan zertxobait entzuten zen baina gu, emakume lesbianak, ikusezinak ginen oraindik.

Lesbianak ez ginen batere deigarriak. Emakume bat lasai asko bizi zitekeen neska-lagunarekin eta jende guztiarentzat lagunak ziren, besterik gabe. Bi mutil elkarrekin bizitzen ikustea, zailagoa zen. Berehala hartzen zieten susmoa. Baina bi neskei, inoiz ez. Bikote izan zitezkeen, elkarrekin bizi, toki guztietara elkarrekin joan eta baten batek, seguru, ahizpak ote ziren galdetuko zien.

Gu, esate baterako, jende gehiagorekin bizi ginen pisu batean. Baita lagun heterosexualekin ere. Garai hartan oso ohikoa zen askotariko jendea elkarrekin bizitzea. Bilbora ikasketak egitera etorri eta non bizi edukitzeko, lagunekin hartzen genuen pisua.

Egundoko festak egiten genituen etxean eta inork ez zigun ezer esaten. Auzokoekin ere ez genuen sekula arazorik izan.

Alderdi barruan politikaz bakarrik egiten genuen berba

Gu oso gazte ginela sartu ginen borroka politikoan, bata Liga Komunista Iraultzailean eta bestea berriz, Langile Komisioetan.

- *Nik alderdiko kide izateari utzi nion borroka lesbianoari atxikitzeko. Hala ere ez diot inoiz trotskista izateari utzi, beti pentsatu baitut oso ideologia polita dela. Eta borroka lesbianoa ere bertan behera utzi nuen, antzerkiaren harrak kabia egin zuenean nire bizitzan. Zorionez borroka lesbianoa antzerkiaren bitartez garatzeko aukera izan nuen, inongo erakundetan lan egitera behartuta egon barik. Antzerkiarekin emakume lesbianen aldeko nahikoa militantzia izan nuen.*

- *Langile Komisionetan pentsaezina zen neure bizitzaz edo emakumeekin nituen harremanez berba egitea. Ez nik ez beste inork ez genuen gure bizitza pribatuaz sindikatuan hitz egiten. Alderdietara edo sindikatuetara borroka politikoa egitera sartzen ginen, ez norberak zituen arazoak konpontzera. Eta horrek berdin-berdin balio zuen kide heterosexual zein homosexualentzat. Politikaz aritzen ginen eta kito. Hala zen.*

- *Hori guztia aipatu duzula, gogoan dut LKI uzteko erabakia hartu nuenean, ez nuela adorerik izan erabakiaren berri burkideei aurrez aurre emateko. Ni lotsati samarra nintzen eta ez nintzen gai halako aitortza garrantzizkoa jendearen aurrean egiteko. Laguna zen burkide bati eskatu nion alderdikideekin hitz egin eta ni banihoala esan ziezaien. Eta hark hitz egin zuen alderdiarekin.*

Oraindik LKIko kide nintzela gogoan dut adiskide batekin, Marianekin, batzar batean izan ginela. Ez dakit zein herritako baserri batean egindako batzar hartan EHGAM (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) sortzeko erabakia hartu eta erakunde berriaren oinarri ideologikoak zehaztu genituen. Asteburu osoa eman genuen batzartuta. Zur eta lur geratu ginen emakume biok baserri hartan ikusi eta ikasitakoarekin. Neronek, behinik behin, sekula ikusi barik nengoen zelan egiten zuten gay mutilek ligatzeko. Asteburua harrigarria ez ezik txundigarria ere izan zen gu biontzat. Ez dakit horregatik izan zen, edo hurrengo bileretara joaterik izan genuelako izan zen, gauza da Marianek eta biok ez ginela aurrerantzean EHGAMkide izan. Ezta ere beranduago ESAMkideak, EHGAMeko hainbat emakumek lesbianen berariazko erakundea sortu

zutenean. Oker ez banago, bizitzaren une horretan izan zen patuak beste nonbaitera bideratu ninduenean.

Neskok beste modu batez jokatzen genuen

Emakumeek EHGAM utzi eta ESAM sortu zuten finean emakume zirelako. Horrekin zera adierazi nahi dut, alegia: emakume ginen aldetik gure jokamoldeek zerikusi gutxi edo batere ez zeukaten mutilen ohiko jardunekin. Ezberdintasunik handienak rolen ingurukoak ziren, euren arteko harremanak sortu eta garatzeko moduekin, hain zuen. Emakumeok beste modu batekoak izaten eta beste modu batera jokatzen ahalegintzen ginen. Esango nuke *ginen* eta *gara*, horixe bera gertatzen baita gaur egun ez bakarrik homosexualon artean, baita bikote heterosexualetan ere. Harremanak lantzeko gizonek zuten jokamoldea arrotza zen guretzat. Eta hori bizitzaren atal guztietan islatzen zen. Gizonek, esaterako –urte haietan bai, behinik behin–, egunaren 24 orduak ligatzen eta larrua jotzen ematen zituzten. Emakumeok berriz, esango nuke beste modu batez portatzen ginela, sentimenduei garrantzia handiagoa emanez, hain zuzen. Txortan ere egiten genuen, jakina egiten genuena. Baina gure sexu-harremanak oso bestelakoak ziren.

Mutilentzat ligatzea izaten zen, *edozein bazterrean harrapatu eta bertan jo ta fuego*. Gauez oso toki arriskutsutan ibiltzen ziren mutiletan aritzeko. Guk emakumeok ez dugu inoiz halakorik egin. Mutilentzat larria izan zitekeen txaperoren batekin gau ilunean ibiltzea, beti baizeukaten erasotuak izatearen arriskua. Ez naiz txantxetan ari, *Balcon de La Lolan* mutil bat labankadaz hil baizuten eta parkean, berriz, *El Huevero* bezala ezaguna genuen gizon homosexuala.

Lesbianismoa, gainera, feminismoari lotuta zegoen, borroka kontzeptuari dagokionean, bederen. Horrek ere arras desberdintzen gintuen gay gizonengandik. Lesbianen mugimendua askoz ere lotuagoa egon zen ezkerreko ikusmoldeekin, gay gizonena baino. Zentzu horretan gay mugimendua pluralagoa izan zen. Ezagutzen ditugu, esate baterako, Sopelako hondartzan *txapel okerrekin* (guardia zibilak) ligatu eta ondoko pinudian txortan ibilitako lagunak. Guri, hori, jasanezina egiten zitzaigun. Haiek baina, zera esaten ziguten:

- Guri bost zer dun morroia. Ondo bazegon… jo ta fuego!

Gay gizonekin alderatuta gu erredikalegiak ginen. *Kubata*rik ere ez genuen edaten, rona *Coca-Cola*rekin nahastu behar zelako eta hori, guretzat, inperialismo madarikatua-

ri mesede egitea zen. Borroka feministan genbiltzan emakume lesbianok gutxieneko gerturatze ideologiko bat behar izaten genuen inorekin ligatzeko. Emakume polizia batekin oheratzea, esate baterako, pentsa ezina zen guretzat. Bagenekien bera izan zitekeela biharamuneko *manifan* oldartuko zitzaigunetako bat. Gu oso ezkerrekoak ginen eta, esan bezala, inorekin oheratzeko ere gutxieneko baldintza horiek eskatzen genituen. Berriro diot, pentsaezina zen guretzat emakume faxista batekin txortan egitea. Zentzugabekeria! Gay mutilek berriz, ez zeukaten halako eragozpenik. Horrek erabat bereizten gintuen haiek eta gu.

Jazarpena 80. hamarkadarekin batera heldu zitzaigun

Jazarpena ere modu desberdin batean sufritu genuen haiek eta guk. Artean Gizarte Arriskugarritasun Legea indarrean bazegoen ere, emakumeok ez genuen sufritu Poliziaren sarekadarik Zazpi Kaleetako gure ohiko tabernetan. Mutilek alta, asko sufritu zuten alde horretatik. Zenbatetan ez ote dugun entzun *Otxoa*, garai hartako istorio latzak kontatzen. Behin, kontatu izan digu, 70. hamarkadan lagun bat etorri zitzaion Bartzelonatik bisitan. Gauez atera ziren biak, bata praka arrosak jantzita eta bestea praka beilegiekin. Biak ala biak, estu-estuak. Areatzako zubia zeharkatzen ari zirela, *makarra* kuadrila bat hurreratu eta eraso egin zieten. Otxoa eta laguna hanketatik heldu eta zubitik eskegi zituzten.

- Ea bada, nor duk hemen maritxua? –galdetu zieten.

Otxoa beti bezain xelebre, erantzun egin zien: *Bera dun maritxua!* Zer esan behar zien hark! Azkenean ez zituzten errekara bota baina oso larri ibili ziren biak. Emakumeok ez genuen halakorik jasan. Ez behintzat 80. hamarkadara arte. Izan ere, urte horietan modu lar anbiguoan janzten hasi ginen eta orduan hasi ziren guretzat komeriak. Handik aurrera emakume lesbianok ere jazarpena eta erasoak sufritu genituen hainbat gizonen eskutik. Baina hori geroago izango zen, hainbat urte beranduago lesbianen *look*a izango zenarekin janzten hasi ginenean. 70. hamarkadan gure janzkera emakume progreena izan ohi zen, inoren gustu eta gogo sexualak adierazten ez zuten arropekin, alegia. Garai hartan emakume guztiak oso irekiak ginen; irekiak buru aldetik eta irekiagoak hanken artean.

Emakumeon artean, gainera, elkartasun oso handia zegoen. Kuadrilek elkarri defenditzen zioten, baita mistoak zirenek ere. Gurean, esaterako, baziren mutil homosexualak, neska lesbianak eta bikote heterosexual peto-petoak, elkarrekin 15 urte baino gehiago zeramatzaten horietakoak. Guztiok genuen guztion berri, adiskide ez ezik la-

gunak ere baginelako. Ez genuen ulertuko, ezta onartuko ere, lagun batek aintzat ez hartzea kuadrilako guztion maitasun erak. Gure kuadrilak halakoak ziren, askotarikoak.

Zazpi Kaleak, gure gune askea ziren

Zazpi Kaleak gure gune askea ziren arratsaldez, lanetik edo ikastetxetik irten ondoren kalera jotzen genuenean. Gauez, berriz, beste motako tokietan ibiltzen ginen: arestian aipatutako *Crazy Horse* pub hartan, batez ere, eta Santutxun zegoen *Porto Bello* izenekoan. Azken hori bikote heterosexualei eta senar desleialei zuzendutako boite bat izan zen hasiera batean. Emakume lesbianok tokia hartzen eta gure egiten hasi ginen eta lortu genuen. Horrenbeste lortu gainera, ugazabak berak dirua eman zigula gure gustuko musikako diskoak erosteko. *Crazy Horse*n hasten genuen gaua. Egundoko festak egiten genituen bertan. Goizeko ordu txikitan berriz, *Porto Bello*ra joaten ginen goizeko bostak arte ez baizuten zarratzen.

Sasoi batean maiz joaten ginen *Bataclan* dantzalekura, Gorteak kalean. Ikuskizun ederrak izaten ziren han eta berton ezagutu genituen emakume bilakatutako lehenengo mutilak. Trabesti deitzen genien, baina ez ziren. Emakume transexualak ziren, artean beraiek ere zer ziren ez jakin arren.

Haiek izan ziren Bilbon izandako lehenengo transexualak. Sexu aldaketa egin ahal izateko diru asko behar izaten zuten eta prostituzioan jarduten ziren dirua egiteko. Zoritxarreko garaiak ziren haiek emakume transexualentzat: tajuzko ebakuntzak egin ordez, zikiratu egiten zituzten.

Bilbon emakumeon arteko *ligoteoa* 80. hamarkadan bizkortu zen lesbianontzako giroko tabernak ireki zituztenean. *Convento* izan zen lehenengoa eta *Enigma* bigarrena, urte batzuk beranduago. Hura zen festa, hura. Aurretik ez zegoen ezer ez. Lesbianok *look*az eta jarreraz mudatu genuenean, hasi zen jaia. Goitik behera aldatu zen lesbianon errealitatea 80. hamarkadan, gu geu kale borrokarako prest agertu ginenean.

Behin Saninazion zegoen taberna batean izan ginen eta ospa egin genuen bertatik, izututa. Han ziren emakume femeninoak, femeninoegiak ziren eta maskulinoak, berriz, ar puska ederrak. Jokamoldeak larregi zehazten zituzten emakume haiek. Benetan diot, izututa egin genuen hanka taberna hartatik. Bitxia iruditu zitzaigun, hori bai, han ikusitako guztia, batez ere emakume feministak ginen aldetik, ez zitzaigulako buruan sartzen.

Borroka politikoa eta sexuala

Elkarrekin joan ginen gu biok Bilbon sexu askapenaren alde egin zen lehenengo manifestaziora. Ez dut gogoan Gay Harrotasunaren lehenengo agerrraldia izan ote zen, baina bai izan zela lehenengoa emakume eta gizon homosexualen eskubideen aldekoa. Ondo gogoratzen dugu egun hura Plaza Biribilera heldu ginenean ultraeskumakoak oldartu egin zitzaizkigulako. *Fuerza Nueva* izeneko alderdi ultrak Buenos Aires kalean zeukan egoitza eta bertatik metalezko kanikak jaurti zizkiguten tiragomak baliatuz. Jendetza zihoan manifestazioan, alderdiek bat egin baizuten sexu askapenaren aldeko aldarriekin. Itsumustuan hanka egin behar izan genuen guztiok. Poliziak berehalakoan heldu ziren eta faxistengandik gu babestu ordez pelotazoka oldartu zitzaizkigun. Hori bai, gutako lau edo bost morrosko ultren egoitzara igo eta egundoko jipoia eman zieten erasotzaileei. Latzak izan ziren urte haiek. Faxistak maiz oldartzen zitzaizkigun, pistolak eskuetan, edozein arazoren inguruko protestan elkartzen ginenan. Eta manifestazio dezente izaten ziren urte haietan.

Gu biok oso gazte sartu ginen borroka politikoan –ni neu *Burgosko Auzia*ren kontrako protestan hasi nintzen–, eta ez genuen etsi Franco hil zen arte. Urte haietan politikagintza nagusitu zen gure herriko kaleetan. Borrokak bazuen bere xarma, egoera bera nazkagarria zen arren, zapalduta bizi ginelako. Ez ziguten ezer egiten uzten, dena zegoen txarto edo gaizki ikusia. Nazkagarria, benetan. Oso argi geneukan diktadorea ez bazen hiltzen, gu hilko ginela bidean. Lar politizatuta geunden guztiok. Gero, azkenik Franco zendu zenean, politikagintza are gehiago nagusitu zen ilusioz beterik geundelako, mundua hankaz gora jartzeko irrikitan.

Hiesari ihes egin ez ziotenak

Franco hil ondorengo urteak bizi-biziak izan ziren, guztiak atseginak izan ez ziren arren. Hiesaren krisialdiarekin, esaterako, oso une gogor eta latzak bizi izan genituen. Hasieran zurrumurruak baino ez genituen entzuten. Zerbait entzuten zen, zerbait aipatzen zen, baina ezer ere ez genekien. Gero jakin genuen birus batek eragindako gaitza zela hiesa eta hasieran droga hartzaileei eta gizon homosexualei eragiten ziela, batez ere. Bat-batean giroko mutilak hiltzen hasi zitzaizkigun. Gizon dezente zendu zen gaitzak jota. Emakume lesbianik ez. Zazpi Kaleetan ezagututako gizon asko zendu zen. Gogorra izan zen oso. Gizon gazteak ziren gehienak, itxurazkoak gainera. Hildakoak ez ziren bi edo hiru izan, kopurua larregizkoa izan zen. Hori baino okerra-

goa izan zen, hala ere, auziaren inguruko ixilkeria. Inork ez zuen ezer esaten eta oraindik ez dakigu oso ondo zenbat jende hil zen hiesak jota. Nik esango nuke giroko mutilen kuadrila guzti-guztietan gutxienez bat edo bi zendu zirela pandemiaren eraginez. Tabu izan zen hiesa, estigmatizatuta zegoelako.

- *Gogoan daukat emakumeon arteko txortaldiak babesteko gomaz egindako zera bat ere kaleratu zutela. Inoiz pentsatu genuen erabiltzea, baina ez genuen egin. Emakumeon artean ez zegoen arriskuaren beldurrik. Ez hori bakarrik, epidemiaren datuak oso esanguratsuak dira: emakume heterosexualak askoz ere gehiago kutsatu ziren lesbianak baino.*

Bilbon, 2015eko azaroan

MARTA BRANCAS

- **Nire ustez Emakumeen Asanbladatik ere, feminismotik, jardunbideak eskaini behar genizkien emakume lesbianei**

Marta Brancas Escartín nauzue. Malagan jaiotako bilbotar peto-petoa eta Frankismoko neskatoa. Diktadurapean hazi nintzen arren, aitortu behar dut umetan zoriontsu izan nintzela. Gurea erdi mailako klaseko ohiko familia bilbotarra zen. Gure aita, merkataria. Bilboko Kale Nagusian zegoen mojen ikastetxe batera bidali ninduen ikastera eta bihotzez esaten dut maitasunez gogoratzen ditudala moja haietako batzuk. Ez ziren ohiko mojak, ez horixe. Ikastetxeko Ama Nagusiak eta Prefektuak, esaterako, abituak utzi eta gizarte mugimenduetan lanean hasi ziren buru belarri. Zendu berri den Ana Ereño edo Ana Basaldua miresteko moduko moja ohi bi izan ziren, dudarik gabe.

Ni oso neskato bizkorra nintzen, eta iaioa. Ikastetxean Otxarkoaga auzoko neskato bat ezagututakoan goitik behera aldatu zitzaidan munduaren gainean neukan ikuspegia. Beka bati esker heldu zen neska hura gure eskolara. Haren etxea ezagutu nuenean lur jota geratu nintzen. Etxe hartako atarian arradikalizatu nintzen ni. Gurea askoz ere etxebizitza politagoa zen, Bilboko erdialdean. Elizarekin ere orduan haserretu nintzen, ohartu nintzenean Eliza ofizialak bidegabekeria horiek guztiak zuritu eta babesten zituela.

Bizitza marraztuta neukan: senargaia, ezkontza eta umeak

---

13 urte besterik ez nituela topo egin nuen sexu gozamenarekin. Ikasteleko neska batekin izan zen. Maiz haren etxean geratzen nintzen lotan. Halako batean, haren logelan biok bakarrik geundela, ez dakit zer egin genuen –xehetasunak ez dizut gogoan–, baina gau hartan lortu nuen neure lehen orgasmoa. *Zer dun hau?*, galdetu nion neure buruari, *hau dun hau, zoragarria!* Hori bai, gogoan daukat plazerra ahitu zenerako oso argi neukala hura, ezinbestean, debekatuta egon behar zuela. Ordurako neure bizitza marraztuta zegoen: mutil-laguna hartu beharko nuen, harekin ezkondu eta hari semealaba ugari egin. Neskato izan nintzen bitartean fustratuta bizi nintzen, oraindik umemoko izanik ez bainuen autonomiarik ezer egin edo erabakitzeko. Neure buruari esaten nion:

- Helduko zain eguna erabakitzeko eta orduan ikusiko diten hauek guztiek!

Gazte izan nintzen bitartean aipatu bide-orria txukun-txukun bete eta mutil-laguna izan nuen. Zorionez, paradoxa badirudi ere, agintari frankistek diziplina-espediente bat zabaldu zidaten eta ikasketak ezin izan nituen Bilbon amaitu. Madril aldera joan nintzen, hartaratuta.

- *Hauxe dun hire aukera* –esan nion neure buruari–*, familia gainetik kendu eta libre izateko.*

Pentsatu bezala gertatu zen. Madrilen hasi zen neure askatasun bidea; hobe esanda, askatasunaren aldeko borroka bidea. Bertan neure moduko neska gehiago ezagutu nituen. Madrilen estudiante izan nintzen bitarte luze hartan senargaia izan nuen, emakumeekin ere oheratzen nintzen arren. Bizitza osoan izan dut oso argi gizonekin izandako harremanak ez zirela, inola ere, berdinen artekoak: Haiek, haiek ziren eta ni, neu nintzen. Andrazkoekin berriz, erabatekoa zen bat-egitea. Ispilu ziren niretzat. Elkarren arteko ezagutza osoa zen, gizonekin sekula lortu ez nuena. Emakumearen gorputza nire sexualitatearen baitan desegin eta bakarra izatera heltzen ginen. Gizonak eta emakumeak guztiz ezberdinak ziren, dudarik ez dut horretan.

Artean Bilbon bizi nintzela, Madrilera joan aurretik, ni feminista nintzen jada, feminista izatea zer zen oraindik ez banekien ere. 1971 urtean ez dakit nola izan zen baina jakin nuen bazela *martxoaren 8*ko ospakizuna. Lotsak bazterrean utzi, Gobernu Zibilera joan eta Bilboko Ateneoan hitzaldi bat egiteko baimena eskatu nuen. Lortu ere bai. Gaur ez da inor Ateneoaz gogoratzen, baina Colon de Larretegi kalean zegoen egoitza hura, Trueba zinemaren aurrean, Francoren kontrako borrokaren oso gune garrantzitsua izan zen, diktadura indarrean izan zen bitartean. Hitzaldian emakumeon egoera aztertu genuen. Egun hartan bazterkeria berba aipatu genuen eta gogoan dut gurekin izan zirela emakume kristau ugari. Haiek esaten ziguten: *Jakina, emakumeok ere gizakiak baikara.*

Borroka-ikasketak lehian, borroka garaile

Madrilera estudiante joan nintzenean Nobel saria neukan gogoa. Alegia, nire asmoa Zientzia Politikoak, Soziologia eta Medikuntza ikasketak denak batera egitea zen. Etorkizunean ikerlari izan nahi nuen. Zientzia Politikoen fakultatean egundoko mugimendu politikoarekin egin nuen topo. Berehala ohartu nintzen aurreikusitako guztiak ezingo nituela egin. Medikuntza ikasketak egin nahi banituen, orduak eta orduak sartu beharko nituen liburuen gainean, gainerako guztiak baztertuz. Zalantzan nengoela, borroka politikoa gailendu zen; ikasten ari nintzenarekin bat zetorrena, bestalde. Une

hartan Liga Komunista Iraultzailea –trotskista, IV. Nazioartekoa– sortze bidean zegoen eta bertan sartu nintzen, bete-betean sartu gainera.

Mundu osoan IV. Nazioartekoan ziren emakueei esker hainbat tokitan gailentzen ari ziren feminismo olatu berriak ezagutzeko aukera izan genuen: Europako emakueen mugimenduak batetik, 68ko maiatzaren oinordeko zirenak eta, bestetik, Estatu Batuetan auto-kontzientziaren bitartez emakumeen auto-erakuntza prozesuan ziren bestelako taldeak. Gurean goseak bat egin zuen jateko premiarekin eta perretxikoak bezala emakumeen hamaika erakunde sortu zen, batez ere unibertsitarion artean. Egia da garai hartan gutxi batzuk ginela unibertsitatera heldutako emakumeak. Mutilekin alderatuz gero, kopuru eskasa egiten genuen, baina baginen dozenaka batzuk emakume unibertsitariak. Guztiak sartu ginen alderdi politiko honetan ez bazen, horretan edo hurrengo hartan: Mugimendu Komunistan, Liga Komunistan eta Alderdi Komunistan, besteak beste. Izan ziren, jakina, alderdietatik kanpo antolatu ziren emakumeak ere. Eta alderdietako emakume bat zegoen tokian, emakumeen erakundea sortu zen. Auzo Elkarteetan, esate baterako, emakumeon egiturak sortu genituen. Urtea haietakoa da, gainera, Emakumeon Askapen Frontea. Bertan ezagutu nuen Carlota Bustelo, Franco hil eta urte dezente beranduago *Emakumeen Institutu*ko lehenengo zuzendaria izango zena, Administrazioan feministak baziren garaian.

Liga Komunistan ginenok txosten mardula idatzi genuen emakumeok jasaten genuen zapalkuntzari buruzkoa. Idatzian, Marx eta Engels bezalako ohiko marxisten kritikak gainditu eta emakumeon zapalkuntzaren oinarrian jatorri materialistak bazirela ohartarazten genuen. Aipatu zapalkuntzaz egindako azterketaren muinean, gainera, sexualitatea ardatz bezala finkatu genuen. Sexualitate librearen aldeko aldarria egin genuen eta, hargatik hain zuzen, gogor kritikatu genuen ezkerreko mugimenduetan horren zabalduta zegoen aurreiritzia, alegia: askatasunaren aldeko borrokan ari ginen emakumeak izaki, edozein gizonekin eta guztiekin txortan egitera behartuta geundela. Azterketa horiek guztiak oinarri, urrats politikoa eman eta emakume independenteen erakunde autonomoak sortzearen aldeko hautua egin genuen. Gure ustez, mugimendu feministak alderdi, sindikatu, Eliza eta Estatuarengandik independente behar zuen izan.

Diktaduraren azken urteak oso-oso gogorrak izan ziren Madrilen. Birritan sartu ninduten Yeseriasko kartzelan (Madril), legez kanpoko erakunde bateko kide izatea eta propaganda klandestinoa egitea egotzita. Presondegian ezagutu nituen, besteak bestek, Eva Forest zena eta Lidia Falcon, izen handiko feministak. Gehienok 1977 urteko amnistiarekin lortu genuen askatasuna, frankisten iragana zuritzeko ere balio izango zue-

lako orain zapuztu nahi dugun lege madarikatu harekin, alegia. Yeserias eraitsi egin zuten eta bada penagarria. Pentsatzen dut eraikina bere horretan gorde behar zela, bertan izan ginen errepresaliatu guztion memoria babesteko.

Ni, lesbiana borrokalariaren eredua

Atxilotu ninduten bigarrengoan nirekin batera atzeman zuten nazionalitate bikoitza zuen Ligako beste emakume bat. Espainola eta frantsesa zen, aldi berean. Ni kartzelan sartu eta hura Espainiako Estatutik kanporatu zuten. Parisen bizi da geroztik. Harremana galdu genuen, jakina. Duela urte gutxi, baina, haren gutuna jaso nuen. Ez dakit zelan egin zuen ni aurkitzeko. Adiskidetasuna berreskuratuta, neu Parisera joan eta hura Bilbora etorri zen, behin baino gehiagotan. Bisitaldiotako batean lesbiana zela esan zidan eta zera gaineratu zuen:

- Heu hintzen niretzat lesbiana borrokalariaren eredua.

Txundituta utzi ninduen aitortzak, ni ez bainintzen lesbiana. Ez agerian, behinik behin. Egia da Askapen Homosexualerako Fronteko hastapenetan sartuta egon nintzela eta ondo gogoratzen ditudala Concepcion auzoan egiten genituen batzarrak. Baina hura, niretzat, askatasunen aldeko borroka hedatu eta areagotzeko modu bat besterik ez zen. Hargatik, ezustean harrapatu ninduen neu inoren lesbiana eredu izan nintekeela jakiteak. Urte dezente pasatuko ziren neure buruari bisexuala nintzela aitortuko nion arte eta orduan bai, orduan topo egin nuen bete-betean borroka lesbianoarekin.

Eta… Argi eta garbi berba eginez gero, lesbiana izatea, zeri dago lotuta? Sexualitateari edo, polikari? Eskubideekin dago lotuta? Nortasunarekin? Beldur naiz egiazko arazoa horixe dela, zehatz metas ez dakigula sexualitatea bera zer den, eta zer ez. Zertarako den ere, ba al dakigu? Zentzu horretan, ezin ditut ahaztu mugimendu feministaren hastapen urteetan izan genituen eztabaida intelektuak potolo haiek. Nola ahaztu *Orgasmoaren eginkizun sozial*aren gaineko eztabaida hura! Denborarekin hausnarketa potolo horiek guztiak bazterrean geratu ziren. Nik behintzat ez nituen berreskuratu 80. hamarkadan Bilbora itzuli eta bertoko mugimenduan sartu nintzen arte.

Berriro ere Bilbora itzulitakoan bete-betean sartu nitzen Bizkaiko Emakumeen Asanbladan. Hura zen alderdikideok horrenbeste borrokatu genuen emakueon erakunde autonomoa. Oso talde indartsua zen Asanblada. Bertan ezkerreko hainbat alderdietako emakumeek bat egiten genuen alderdietatik kanpo zebiltzan feministekin. 1977an lehenengo Topaketa Feministak egin genituen, Leioan. Emakumeon sexualitatea hizpi-

de izan genuen batzarrean. Eztabaida handiak izan genituen horren harira. Baita homosexualitatea eta lesbianismoaren inguruan ere. Topaketa hartan oso argi geratu zitzaigun gustillo emakumeon bizimodua gizonek baldintzatuta zegoela, heterosexualitatea eta monogamia derrigorrezkoak izanik, gizonekin harremantzera behartuta geundela eta hortaz, amatasuna sexuari lotuta zegoela, halabeharrez. Hori guztiori lokan ipini genuen batzar hartan.

Asanbladak, lesbianismoa eskuordetu egiten zuen

Urteak joan urteak etorri, herrialde guztietako Emakumeen Asanbladen baitan Lesbiana Feministen Kolektiboak sortu ziren. Ni neu ez nintzen sekula Kolektiboko kide izan. Emakumeen Asanbladaren barruan nituen ardura eta egitekoak garrantzizkoagoak zirela uste izan nuen. Asanbladaren barruan lan handiagoa eta emankorragoa egin nezakeen lesbianen mesedetan, Kolektiboan bertan baino. Asanbladak Kolektiboaren esku uzten zuen lesbianismoarekin zerikusi zuen guztia eta ni ez nengoen ados. Esaterako, Asanbladak *E28*ko antolakuntza eskuordetu egiten zuen beti. Ene uste apalean Asanbladatik bertatik ere, feminismotik, jardunbideak eskaini behar genizkien emakume lesbianei. Hori ez zen bakarrik lesbianismo politikoaren egitekoa. Uste nuen eta halaxe defenditu nuen Asanbladaren batzarretan, feminismoak bestelako sexualitatea osatzeko baliabideak eskaini behar zituela, bestelako harremanak eraikitzeko bideak eta, zentzu horretan, lehentasuna eman behar ziela ikusezinak ziren harremanei. Hori izan zen nik neuk emakumeen mugimenduan egin nuen ibilbidea.

80. hamarkadan bertan, eta Lesbianen Kolektiboaren sorreraren ostean, Asanbladaren baitan Sexualitate Batzordea eratu genuen. Urte dezente eman zituen batzorde honek eta bertan batutako kideak oso kritikoak ziren hainbat gauzekin. Esaten zuten, adibidez, mugimendu feministak ez zuela talde zehatz baten eskubideen alde bakarrik borrokatu behar. Batzordeko kideek, aitzitik, gure borroka, zentzu orokorrean, eskubiden eta askatasun sexualen aldekoa izan behar zuela aldarrikatzen zuten. Gai horren inguruan eztabaida ugari izan ziren, ez bakarrik Bizkaian. Azkenean Sexualitatearen gaineko Estatuko Topaketa egin genuen Madrilen. Bertan ez genuen auzia argitu. Azken batean ezina izaten da egun biko topaketan ezer konpontzea. Halako batzarretan taldeetan aurretik egindako lana biribiltzea besterik ezin da egin. Zentzu horretan, halako topaketak oso aspergarriak izan ohi dira.

Orain 20 bat urte, Euskadiko Bigarren Jardunaldi Feministak egin genituenerako, mugimendu feministaren eztabaidatik kanpo zegoen sexualitatea, ia-ia desagertuta. Ge-

roztik egin izan duguna eskubideen aldeko borroka izan da: berdintasuna, ezkontza, adopzioa edo intseminazio eskubideen aldekoa, alegia. Jakina, ez da gauza bera. Une zehatz batean, posmodernismoak jotako jende batek lesbianismoa albo batean uzteko apustua egin zuen. Haien aburuz askatasun sexualen aldeko borroka garatu beharra zegoen, nahi eta nahi ez. Ni ez nengoen haiekin bat. Nire ustez mugimendu feministak eta feminismoak berak beste zeregin batzuk zituzten.

Borroka eta nesketan egitea uztartuz

Orain arteko guztiei erreparatuz, baten batek pentsa dezake borroka besterik ez zegoela gure bizitzan. Ezta hurrik eman ere. Bilbon, hainbat urtez, nahi beste gozatu eta disfrutatu genuen. Ni 1977ko ekainaren 16an itzuli nintzen Madriletik, 24 urte nituela. Ordutik 90. hamarkada heldu zen arte, neska gazte mordo bat ibili ginen Bilbon, borroka politikoa gozamenarekin uztartzen. Izugarri gozatu genuen. Ez dut ukatuko guk guztiok hartutako ardura politikoak ere tamainakoak zirela. Izan ere, Emakumeen Asanblada osatzeaz gain gutako gehienak ezker iraultzaileko hainbat alderdietako kide ginen. Baina esan bezala, horrekin guztiarekin batera elkarrekin ondo pasatzen, disfrutatzen eta gozatzen bazekiten lagunak ginen. Borroka urte haiek nesketan egiteko urteak ere izan ziren, alajaina!

Gurean, Bilbon, inflexio-puntu garrantzizkoa izan zen Itxaropen kalean *Convento* taberna ireki zutenean. Espreski emakumeei zuzendutako lehenengo taberna izan zen hura. Handik bikote eta harreman mordoa atera zen, bertan ezkerreko militanteak eta Emakumeen Asanbladako kideak bestelako emakume lesbiana ugarirekin batzen baikinen. Guk antolatutako jaietara guzti-guztiak etortzen ziren arren, denak ez zeuden prest Kolektiboaren barruan lan egiteko. *Convento* ireki zutenean bertara emakumeak bakarrik sartzen ginen. Tabernaren gainbehera bertako ateak gizonezkoei ireki zizkietenean hasi zen. Zergatik? Gizonek guk baino diru gehiago izanik eta ohituago egonik gaugiroan ibiltzen, apurka-apurka taberna beraientzat hartu zutelako. Gizonak agertzearekin batera, emakumeak bazterrean geratzen ginen.

Garai batean, bestalde, emakume lesbianen talde batek ahalegin berezia egin zuen kultur ekintzak antolatzeko Bilbon. Antzerki talde bat osatu zuten, *Mari Matraka* izenekoa, eta taldeko hainbat kidek gero *Karraka* taldean amaitu zuten. Antzezlanen gidoiak taldeak berak egiten zituen eta, beraz, harremanen edo sexualitatearen gaineko oso ikuspegi berezia eskaintzen zuen taularen gainean. Horrez gain, Lesbiana Feministen Kolektiboak *Sorgiña* izeneko aldizkaria kaleratzen zuen. Antolatu gabeko lesbia-

na askorentzat Bibliaren parekoa zen aldizkaria. Izan ere, agerkarian beraien moduko emakumeek hitza hartzea eta beraien iritziak ematea, oso garrantzitsua zen emakumeontzat. Hura zen beraiek ere bazirenaren frogarik argiena. Neuk ere aldizkarian idatzi ohi nuen. Argitaratutako artikuluen artean gogoan daukat Emakumeen Munduko Lehen Martxari egindako kritika, sexualitateaz ari zirenean ez zituztelako aintzat hartu nahi izan lesbianen arteko harremanak. Beldur ziren lesbianak aipatuz gero ez ote zituzten emakume asko uxatuko.

Ezingo dugu ukatu gaia korapilatsua zenik. Munduko emakumeen mugimendu hainbatetan liskar handiak izan ziren lesbianak zirela eta ez zirela. Hasteko, auziari kutsu politikoa kendu zitzaiolako. Hau da, pentsatzen zen, eta oraindik pentsatzen da, lesbiana izatea gako pertsonala dela, borroka politikoan eraginik batere ez duena. Geure burua marxistatzat aitortzen dugunontzat arazo larria da hori. Zergatik bada? Memoriaren aldeko borrokan, ezinbestekoa delako aldaketaren eragile izango direnen kontaketa aintzat hartzea. Beste modu batera esanda: ohikoak ez diren sexu jardunbideak edukitzeak, nahi eta nahi ez suposatuko dizkio emakumeari, ohikoak ere ez diren pentsamoldeak eta errealitateak eduki eta bizitzea. Alde horretatik niretzat oso argi dago emakume lesbianenganako bazterkeriak indar bizia duela oraindik. Izate lesbianoa maila pertsonalera mugatzen den einean, emakumeoi eragile politikoa izatea ukatzen baizaie. Oraindik ukatu egiten zaie beren kabuzko plazerra, sarketarik eta gizonik gabeko txortaldia, alegia. Gaur egungo sorginak gara gu. Hori bai, errepresioa maila txikikoa da, ez baita politikoki zuzena lesbianak erasotzea. Baten batek hau irakurritakoan pentsatuko du armairutik irteten nabilena. Nik ez dut inongo armairutik atera beharrik, ezagutzen nautenek beti jakin izan dute eta dakite nor naizen.

Etxekoei neska-laguna aurkeztu nien, eta kito

Egintza burutuak goiburu izan ditut neure bizitzan. Sexuak, niretzako, berdin-berdin balio du maitasuna dagoenean edo larrua larru truk denean. Izan ditut, eta baditut oraindik, larruaren trukeko hamaika txortaldi, maitasun loturarik gabekoak. Izan ditut, jakina, maitasun osoz egindako txortaldiak. 24 urtez neska-laguna izan dut eta mundu guztiak beti jakin du nor eta zer zen hura niretzat, baita etxekoek ere. Etxean sekula ez nien esan lesbiana nintzenik. Halako batean neska-laguna aurkeztu nien eta argi utzi nien: *Berau arbuiatuz gero, ni arbuiatzen nauzue*. Nahikoa izan zen horrekin. Bete-betean onartu zuten. Nik ez dut inoiz neure burua aldarrikatzen ibiltzeko premiarik sentitu. Inori ez diot inori *ni lesbiana naiz!* esan. Beharrik ere ez. Batez ere, agian, bihar bertan, gizon batekin txortan egiteko gogoak izango ditudalako.

Aurpegia eman ez izanagatik ere, ez naiz inoiz arduratu. Neri bost. Besterik da, nik ezer esan gabe lesbiana eredugarritzat hartu ninduen Parisko lagunari gertatu bezala, jendeak lesbiana naizela pentsatzea. Mugimenduan baziren telebistan aurpegia eman eta lesbianak zirela aitortzen zuten hainbat kide. Haiekin nahikoa zela pentsatuz, nik ez neukan aurpegia emateko premiarik izan. Egon izanez gero, agian neuk ere emango nuke. Ez zen egon, baina.

Etxekoekin ere ez nuen sekula santan halako beharrik sentitut. Zorionez, gurea nahiko familia irekia zen. Madrilera joan aurretik, 60. hamarkadaren amaieran, mutil-laguna izan nuen, lehenengoa, hark utzi ninduen arte. Bigarrengo bat ere izan nuen eta honek berriz, haurdun utzi ninduen. Amak berak lagundu ninduen Londresera abortatzera.

Gurasoek oso argi zeukaten nik ikasketak amaitu behar nituela eta ez ninduten ezkontzera behartu. Egia ere bada, eta ez dut hala zenik ukatuko, neska-lagunarekin bizi nintzela sarritan joaten ginela gurasoen etxera amarekin eta haren lagunekin askaltzera eta beti galdetzen zidatela:

- Zer, heu noiz ezkonduko haiz? Ba al daukan senargairik?
- Ez. –Erantzuten nien nik. Eta kito.

Ez nintzen asaldatzen: *Baina, itsu al zaudete? Ez al duzue ikusten lesbiana naizena eta ondoko hau dela nire bikotea?* Emakume haien aurrean ez nuen aldarri politikoak egiten hasteko beharrik ikusten. Gurasoentzat nire neska-laguna alaba modukoa zen. Ez ninduten inoiz estutu ezkontzera edo sema-alabak egitera. Hori bihotz-bihotzez eskertu behar diet bai amari eta baita aitari ere.

Eskolako urteak ere atsegin gozoz gogoratzen ditut. Oinarrizko hezkuntza mojen ikastetxean egin arren, sekula ez nuen sexu abusurik jasan eta ez nuen inoiz entzun neure ikaskideek halakorik sufritu zutenik. Jakina, arrosarioa egunero-egunero izaten genuen, mezetara joatera behartuta geunden eta heziketa politiko-erlijiosoa (*Espiritu Nazionala*rena) derrigorrez jaso behar izan genuen.

Nire adineko neska guztiek bezala, gainera, (*Falanjearen*) *Atal Femeninoa*ren Zerbitzu Soziala egin behar izan nuen, ezinbestean. Zerbitzu hura egin ezean ezin izango nuen gidatzeko baimena lortu, ezta pasaportea ere eta ezin izango nuke inon lanik egin. Arazoa hortaz, ez ziren gure moja haiek, indarrean zegoen sistema politikoa baizik. Arestian aipatu dudan bezala, moja haietako batzuk abituak utzi zituzten langile auzoetan lan egin asmoz.

Gure zahartzaroa ez da samurra izango

Etorkizunari begira, aitortu behar dut kezkatuta nagoela. Benetan nago konbentzituta gure zahartzaroa ez dela samurra izango. Ez, azken boladan nagusitzen ari diren indarrei erreparatzen badiegu. Pentsatzen dut beharrezkoa litzatekeela bestelako harremanak eta familia motak aintzat hartu eta legez aitortzen hastea. Ikustea besterik ez dago gure inguruko errealitatea zein aberatsa eta plurala den. Neure inguruan baditut hirukotea osatu duten hiru emakume eta ez dira bakarrak. Neska gazteen artean, batez ere, usu ikusten dira halakoak. Orain baina ezkontza besterik ez dago, han eta hemen. Jaraunspena bermatzea besterik ez da bilatzen, bikotelagunaren ondarea eskuratzea. Eta sexuari dagokionez, beste horrenbeste: ugalketa-teknologien aldeko aldarria besterik ez da egiten. Beharrezkoa litzateke, nire ustez, bide komunitarioak jorratzen hasi eta harreman mota berriak sortu eta garatzea. Eta horrekin ez dut esan nahi berriro ere komunak sortu behar ditugunik.

Hargatik baten batek galdetzen didanean ea egungo neska gazteak inbidiaz begiratzen ote ditudan, nire erantzuna ezin biribilagoa da: Utikan, ni poz-pozik nago daukadan adinarekin, adinaren ajeak nahi baino gehiagotan sufritu behar baditut ere. Sexualitatea ere adinaren baldintzetara egokitu behar izan dut. Are gehiago esango dut: baditut halako une mistikoak zeinetan ez badut gustuko inor ezagutzen, sexua badenik ere ahaztu egiten zait. Neska gazteak ikusten ditut eta, bai, egia da, sasoian daude denetarik egiteko: borrokatzeko, ikasteko eta bizitzeko. Baina erkidego diren aldetik gero eta okerrago daudela pentsatzen dut. Ez dituzte gozatzen guk bizi izan genituen jai haiek guztiak. Emakumeei zuzendutako gaur egungo festak, *Lady Festa* bera edo mugimendu feministak antolatu ohi ditunak aspergarri samarrak dira. Gureak bai ziren festa lizunak. Beharbada gaurko gazteek bestelako bideak izango dituzte nesketan egiteko, baina…

Kezkatuta nago, bai. Ez bakarrik adineko emakumeon egoeragatik, baita gaurko neska gazteei bihar edo etzi egokituko zaien munduagatik ere: Harreman monogamikoak izatera, bikote harremana legez arautzera eta umeak egitera behartuta. Bejondeiela! Gu ez ginen halakoen mesedetan borrokatu. Oraindik gehiago esango dut, lesbianimo politikoak horiek guztiak arbuiatzen zituen. Benetan diot, egungo neska gazteei ez diet inolako bekaizkeriarik. Bizi izandako guztiak, onak eta txarrak, ez ditut ukatzen eta, zinez, aukera banu berriro ere horiek guztiak bizi izango nituzke.

Bilbon, 2016ko otsailean

LALA MUJIKA

- **Feminismoa izan zen, sexu-orientazioa askatasun osoz bizitzeko aukera eskaini zidan lan eta borroka eremua**

Ni Lala Mujika naiz eta 1959 urtean jaio nintzen. Francoren heriotzak 16 urtekin harrapatu ninduen, nerabezaro bete-betean. Beraz, oso gertutik ezagutu nituen bai diktaduraren azken urteak, eta baita Transizio osoa ere. Gurea hamar seme-aleba zituen familia ugaria zen, bost mutil eta beste horrenbeste neska. Aita nik 7 urte nituela, orain-dik ume, zendu zitzaigun. Jazoerak eragin handia izan zuen neba-arreba guztiongan, gu guztiok aukera izan baigenuen nork bere asmo eta helburuak askatasun osoz garatzeko.

Bilbora heldu ginen arte nahiko familia nomada izan ginen. Aitaren ogibideagatik hainbat hiritan bizitzea egokitu zitzaigun. Baina gizona Bilbon zendu zen eta berton geratu ginen gu guztiok. Mojen ikastetxe batean ikasi nuen 16 urte bete nituen arte. Eskolan neskak baino ez zituzten onartzen. Ez dut garai haien gaineko oroitzapen txarrik. Artean Frankismoa indarrean zegoen arren, mojak ez ziren ahalegindu gu hazitakoan ezkondu, seme-alabak egin eta etxeko andre zintzoak izan gintezen. Aitzitik, gurea nahiko ikastetxe interesgarria izan zen alde horretatik, moja guztien aburuz garrantzia handia baizuen gu guztiok ikasi eta ikasketetan aurrera egin genezan. Moja haien gainean ezer txarrik esan beharko banu, oso-oso klasistak zirela azpimarratuko nuke. Haiek bazekiten gu etxe oneko neskatilak ginena, familia dirudunen alabak, alegia. Mojek egundoko garrantzia ematen zioten horri eta ahal zuten guztietan horixe nabarmentzen ziguten. Aitortu behar dut jarrera horrek min handia egin zidala, batez ere gure aita zendu zenean. Mujika ahizpak musutruk jarraitu ahal izan genuen eskolan mojen karitateari esker.

Abitua ezkotzatik ihes egiteko hartutakoak

Ikastetxean emakumeak bakarrik egonik, ni berton ohartu nintzen lehenengoz emakumeak erakarri egiten nindutela. Horrekin ez dut adierazi nahi formalki jabetuta nengoenik erakarpenaz, baina atzera begira eskolako garaiak, orain oso argi daukat moja haietako batzuk lesbianak zirena. Zalantzarik gabe, baziren. Uste osoarekin esaten dudan bezalaxe moja haiek gaur bizi eta lan egin izan balute, gartzelan amaituko luketela ikasleen kontrako sexu abusuak egiteagatik. Argi eta garbi daukat moja haiek

ikasleekin ligatzen zutena eta ez zirela ezkutatzen. Benetan jakin barik zer gertatzen zen gure aurrean, guk hori guztia ikusi egiten genuen. Ordukoak gogoratu eta ondo aztertuz, pentsatzen dut emakume haiek moja sartu zirela ez zutelako ezkondu nahi. Ezin dugu ahaztu sasoi hartan emakumeontzat derrigorrezkoa zela ezkontzea. Gizonak soldadu edo marinel joan zitezkeen, baina emakumeok ez. Unibertsitatean edo lanbide zein profesio gehienetan ateak itxita zeuden emakumeontzat. Zalantzarik ez dut emakume haietako askok ezkontzatik ihes egiteko hartu zutela abitua.

Moja haiekin jakin nuen nik bazirela emakume ikasiak, ikastetxeko maistra gehienak oso iaioak baiziren. Zientzietan, literaturan edo latinean oso jantziak zeuden moja haiek. Sexualitatea izango zen, seguruen, inoiz aipatu gabeko gai bakarra. Horrek ez du esan nahi guk ikasleok jazarpen sexuala sufritu ez genuenik. Zuzenean ez, behinik behin. Zeharkakoak ziren sexuaren inguruko errietak. Gogoan daukat, esaterako, gure gelako ikaskide batek jasotako errieta zeraman gona motzegia zelako. Urtero ikasturtea hasitakoan belauniko jarrarazten gintuzten eta uniformeak ez bazuen behegaina ukitzen, etxera bidaltzen gintuzten:

- Esaiozu zure amari gonaren azpildura luzatzeko, mesedez.

Hargatik diot ez zutela gure sexualitatea zuzenki zapuzten, zeharka, argi baitago, egin egiten zutena.

Mojak ikaskide batzukin zeukaten aparteko harremana gogora ekarrita, nik neuk argi daukat orain moja eta ikaskide batzuk niregan eragiten zuten zirrara, erakarpena zela. Baina horretaz urte dezente beranduago jabetuko nintzen. Sexurik gabeko mundu itxi hartan, non sexualitatea aipatu ere ez zen egiten ez eskolan ez etxean, sexua bazenik ere ez nekien. Oraindik gehiago esango dut, ikastetxeko nire kuadrila oso lasaia zen, ez ginen alboko eskolako mutiletaz batere arduratzen. Ikaskide batzuk bai, maiz ibiltzen ziren Eskolapioetako mutilen atzetik. Guk berriz, paso egiten genuen.

Aurrejuzgurik gabeko lesbianismoa

Dena den, argi esan behar dut askoz ere beranduago jabetu nintzela neskenganako nire apetaz. Noiz? Ikastetxea utzi, Unibertsitatean amaitu, Bilbotik alde egin eta Erandiora bizitzera joan nintzenean. Bertan emakumeen taldeko kideak ezagutu nituen eta, haiei esker, Bilboko mugimendu feminista. Orduan ikasi eta ulertu nuen sabeleko tximeleta haiek zer adierazten zuten. Oraindik gehiago zehaztuko nuke: 20 urte nituela irakurtzeko utzi zidaten liburu batek jarri zuen hankaz gora nire bizitza. *Ñabardura*

txiki bat eta haren ondorio larriak, hori zen liburuaren izenburua. Alice Schwarzer alemaniarrak idatzitako liburuan emakume sorta baten bizitza istorioak jasotzen ziren. Testuinguru eta jatorri askotariko emakume haiek guztiak gauza bakarrean ziren elkarren antzeko, beren moduko emakumeak zituztela atsegin eta maitatzen. Zur eta lur geratu nintzen liburua irakurritakoan. Emakume haien bizipenek begiak ireki zizkidaten:

- *Ni hauen modukoa naun eta.* –Aitortu nion neure buruari.

Nik jakin banekien ordurako lesbianak izan, bazirena. Baina lesbianei buruz nituen aurreiritziak oso zehatzak ziren eta ez nentorren bat emakume haiekin. Ni ez nintzen haien modukoa, ezta hurrik eman ere. Liburu harekin begiak ireki nituen eta onartu behar izan nuen baietz, nik ere emakumezkoak nituela atsegin. Istorio haiei esker ikasi nuen desioa bakarra edo antzekoa izanik ere, askotarikoak direla emakumeak maitatzen dituzten emakumeak.

Gogoan dut gaztetan oso kezkatuta ibili nintzela sexualiatearekin. Erandioko taldean, emakume haiekin guztiekin, ustez heterosexualak ziren adiskide haiekin, askotan gizonak izan ohi zituzten hizpide. Eta *ustez* esan dut, gerora ohartu nintzelako, taldeko hainbati neri gertatu berbera jazo zitzaiela, guztiak *armairutik atera* zirela, alegia. Franco hil ondorengo urteak biluztasunarenak izan ziren, sexu aurkikuntzarenak, non mundu guztia mundu guztiarekin oheratzen zen eta askatasun guztiak libreak ziren. Taldean, batzar batean bai eta bestean ere bai, gizonak zituzten hizpide. Egoera hartan neure burua aldresbes ikusten nuen, elbarritu sexuala banintz bezala. Mutilen gaineko solasaldi haiek guztiak entzun eta niri, bost axola mutilak. Ezin nituen ulertu eta are gutxiago bizi, taldekideen emozioak. Horrek kezkatu egiten ninduen, asko gainera. Horrenbeste, mutil batekin hasi nintzela sasi harreman batean. Sexua mutil harekin ezagutu nuen, baina ez sexu heterosexuala, gizajoak pentsatu bezala. Mutil-lagunarekin txortan eginez egiaztatu ahal izan nituen nire susmoak eta eta zer nintzen erabakitzea lortu nuen. Izan ere, ohean geundela eta mutilarekin disfrutatu behar nuela pentsa zitekeenean, nesken aurpegiak baino ez zitzaizkidan gogora etortzen. Hor erabaki nuen ni ez nintzela heterosexuala eta, 20 urte bete berri nituela, nire lehen txortaldia izan nuen neska batekin. Hastapeneko sexuketa horren ostean poz-pozik bizi izan naiz, orain arte.

Orduz geroztik oso argi izan nuen nondik nora zihoazen nire desioak. Hargatik, inoiz ez nintzen eta ez naiz arduratu lesbiana izateagatik. Are gehiago esango nuke, nire desio homosexualez borroka feministan sartu nintzenean ohartu nintzenez, oso harro bizi izan dut beti nire lesbianismoa.

Feminismo praktikatzailea

Bizitza honetan feminismoarekin izan nuen lehen harremana edo lotura ez zen emakumeen taldean izan. Ez horixe. Etxekoekin izan zen, oharkabean izan bazen ere. Arestian aipatu dudan bezala gurea familia ugaria zen. Bost neska eta bost mutil ginen, alajakina! Ni, gainera, bost neba horietako baten bikia nintzen eta, beraz, gure bizitzan beti egon gara bion arteko lehian, guk biok zer egiten genuen edo zer suposatzen zen egin behar genuela, bata bestearekin alderatuz. Hau da, txiki-txikitandik jakin dut neska izateagatik bakarrik etxean hainbat lan egitera behartuta nengoela; jakin dudan bezala nire neba bikia ez zutela ezer egitera behartzen, mutila izateagatik. Gutxi gorabehera, etxeko neska guztien patua izan zen hura. Gure etxean feminismoa oharkabean, baina indarrez sartu zen etxeko neska guztiok amari planto egin eta mutilekiko berdintasuna exijitu genionean.

Liskar bizian egon ginen etxean, mutilak ere etxeko lanez arduratu zitezen lortu genuen arte. Gogoan ditut orduak eta orduak ematen genituela batzartuta eztabaida bizian. Okerrena ez zen mutilekin liskarrean aritu behar izatea, edo haien erresistentziak gainditu behar izatea. Okerrena zen amarekin ere borrokatu behar izaten genuela, gure amak oso-oso barneratuta baizeukan etxeko lanak nesken ardura zirela, eta ez mutilenak. Gure ama egoskortu egiten zen eta egun batean bai eta hurrengoan ere bai, bost neskoi egin nahi ez genituen lan haiek agintzen zizkigun. Nire bizitzan, 11 urte izan nituenetik 19 bete nituen arte, etxetik alde egin nuen arte, alegia, liskar biziak ezagutu nituen familian. Ia egunero egiten genituen batzarrak, azkenean neskek irabazi egin genuen arte: sukaldean taula bat ipini genuen eta hor astero idazten genuen zein egunetan, nori, zein ardura zegokion. Guk oso zurrun jokatu genuen mutilak etxeko lanetaz benetan arduratu zitezen.

Hura feminismo praktikatzailea izan zela esango nuke, oso defentsiban. Niri, esaterako, nebetako batek izugarri lagundu ninduen kontzientzia feministaren bizkortzean. Gizona asko aldatu da orain, onerako, genero auziei eta berdintasunari dagokienez. Baina nik 16 urte nituenean, gogor egiten zidan, gupida barik. Feminismo politikoa ezagutu berria neukan eta ordurako behin baino gehiagotan egokitu zitzaidan *grisen* (orduko Polizia Armatua) aurrean korrika egin behar izatea, gure protestaldiei oldartu zitzaizkielako. Kalean jasotako ideia berri guzti haiek buruan bor-bor nituela etxeratzen nintzen eta nebak, esan bezala gupida barik, liluratuta neukaten gogoeta haiek zapuztu egiten zizkidan. Ondo gogoratzen dut zenbat kosta zitzaidan arbuiatu eta erantzutea garai hartan nagusi ziren hainbat aurreiritziei; emakumeok hainbat gauza egiteko

gai ez ginela zioen uste ustel hura, esaterako. Ezintasunak eraginda, nebari erantzuteko moduko argudioen bila ibili nintzen luze eta horrek luzera, asko lagundu ninduen. Etengabe argudioen bila ibiltze horretan kontzientzia feminista areagotu zitzaidan, oharkabean.

Feminismoa gune paralelo gisa

Borroka feministara Erandio eta Astrabuduako emakumeen taldearen eskutik heldu nintzen. Haiei esker ezagutu nuen Bizkaiko Emakumeen Asanblada eta hura izan zen aurrerantzean, nire bizitzako eremurik naturalena. Gainera guztiak ez baziren, taldeko ia emakume guztiak lesbianak ziren. Beraz, ezingo nuen toki aproposagorik aurkitu zoriontsu izateko.

Mugimendu feministak izugarrizko indarra zeukan herrialdean. Bizkaiko Emakumeen Asanbladak taldeak zituen herrialdeko herri eta hiriburuko auzo guztietan. Taldean lortutako esperientzia oso aberatsa izan zen gu guztiontzat, bai maila pertsonalean eta baita, jakina, maila politikoan ere. Aitortu beharra daukat, hala eta guztiz ere, gure egunerokotasunean, gure etxe edo lantoki zein eskolei zegokienez, feminismoa nahiko kanpo geratzen zela, gune paralelo gisa, aparteko bezala. Horrek ez ninduen larregi kezkatzen, niretzako feminismoa izan zelako, neure sexu-orientazioa askatasun osoz bizitzeko aukera eskaini zidan lan eta borroka eremua.

Urte haietan guztietan hausnarketa handiak egin ziren emakumeon mugimenduen aldetik. Guk asko irakurtzen genuen eta gehiago eztabaidatzen. Gure esku zegoen guztietan, hankaz gora ipintzen genituen gainontzekoen aburuz egia biribilak ziren usteak; gaur bertan zalantzan jartzen ez diren hainbat eta hainbat pentsamolde goitik behera errefusatu genituen. Gauza bat izaten ziren gure ideia eta borrokak, eta bestea baina, gure bizimodua. Askotan kontraesanetan erortzen ginen. Esate baterako: guk neska-lagunarekin bikotean bizitzeko irrikitan egoten ginen, Asanbladako batzarretan, eztabaida politiko-teorikoetan, guztiz kontrakoa defenditzen genuenean:

- *Bikotea Patriarkatuaren amu bat da, suntsitu behar duguna. Guztiekin oheratu behar dugu.* –Horiek esaten genituen batzarretan.

Horrek kontraesan handiak eragiten zizkidan. Esaten genuenez, *pribatua publikoa da eta publikoa berriz, pribatua*. Irmotasun handiz esaten genuen, gainera. Horrenbeste, gu guztion egunerokotasuna kontraesan handiz bizitzera behartzen gintuela. Asko

kostatu zitzaidan neure bizitzan nolabaiteko oreka aurkitzea. Itxuraz aipatu kontraesana irmoa zen arren, ez zela horren irmoa ondorioztatu nuen azkenean:

- *Nik bikotean bizi nahi dut* –onartu nion neure buruari–*, baina horrek ez du esan nahi bikotea denentzat egokia denik.*

Berba bitan, argi eta garbi ikusi nuen aniztasuna zela maila orokorrean defenditu behar genuena: emakume batek emakume ugari nahi bazituen, emakume asko izango ziren haren aterabidea; beste batek bi baino nahi ez bazituen, harentzat bi izango ziren; eta besteak berriz, lau nahi bazituen, lau.

Garai hartan Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren baitan, edo hobe esanda, Asanbladari atxikitutako erakunde autonomo gisa, Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zen. Nik argi ikusten nuen Asanbladaren baitan maiz eta asko hitz egiten genuela sexualitateari buruz, baina gutxi, edo ia ezer ez, lesbianismoaz. Kolektiboan burkideak ginen, jakina, baina baita adiskide eta lagunak. Hor barruan guztiek ligatu zuten guztiekin. Neu izango nintzen, seguruen, salbuespen bakarra, ni ez bainintzen Kolektiboko inorekin oheratu. Ordukoez akordatuta barre egiten dut orain, baina aitortu behar dut tentsio une oso larriak bizi ohi genituela Kolektiboaren batzarretan, kideen arteko egonezinak zirela medio. Izan ere, astean bi edo hirutan elkartzen ginen eta, batek gaino gehiagok bezperan neska-laguna kendu zionarekin batzartu behar izaten zuen. Eta egun hartan, akaso, sexu askapena izango genuen hizpide. Bileretan pil-pilean izaten zen kideon arteko larritasuna. Pentsatzen dut, edo pentsatu nahi dut, maila teorikoan bikotearen kontrako aldarria egin izanak lagundu egiten zigula talde kohesioari eusten. Norberaren larritasunak bazterrean utzi eta halakoak defenditu behar izatea, latza izaten zen. Oso latza, larregitan.

Hamar urte eman nituen Lesbianen Kolektiboan

Hamarkada hori eso interesgarria eta polita izan zelakoan nago. Erdi zoratuta geuden taldeko gehienak. Orduak ematen genituen kanpaina berri eta berritzaileak asmatzen eta kartelak ipintzen. Gure lorpenik behinekoena Emakumeen Asanbladako talde guztiek nork bere auzo edo herrian gure kartelak ipintzea izan zen. Hau da, 80. hamarkadan lesbianon aldarriak Bizkaiko herri guztietara heldu ziren, baita herri txiki-txikietara ere. Egundoko lana egin genuen eta onartu behar dut lan minutu guztietan disfrutatzen ikasi eta lortu genuela. Bi egunetik behin batzen ginen eta asteburu askotan koordinadorak izaten genituen, nazionalak batzutan eta Estatu mailakoak, bestetan.

Gipuzkoako kolektiboko emakumeekin sumindura eta lehia arteko zera berezia geneukan. Batzarrean elkartzen ginenean, kantuz egiten genuen borroka. Guk haiei: *Una gipuzkoana vino a Bilbao, por ver la ría y el mar, y al ver a las bilbainitas, ya no se quiso marchar* (gipuzkoar bat Bilbora etorri zen erreka eta itsasoa ikusi asmoz, eta bertoko neskatilak ikusitakoan, ez zuen alde egin nahi izan). Haiek guri orain gogoratzen ez dudan antzeko kantu batekin ihardesten ziguten. Batzarrak entretenigarriak izaten ziren, oso. Hamar urtez, hausnarketa egiteko topaketak antolatu genituen urtero eta, sinesgaitza badirudi ere, hiru mila emakume lesbiana baino gehiago batu genituen. Garai hartako hainbat lagun, lagun min izaten segitzen dute oraindik.

Lesbianen Kolektiboko kide izan ginen emakume guztiok onartzen dugu elkarrekin oso garai interesgarri eta garrantzitsu bat bizi izan genuela, aniztasun sexualari mesede handia egin ziona, baina baita herritar guztien sexu askapenari ere. Hori aintzat hartzen dut eta aintzat hartzen dut, hartze horretan orduko burkide guztiok aintzat hartzen diogula elkarri.

Bizkaian Lesbianen Kolektiboa 80-90 hamarkaden artean izandako hainbat eztabaiden ondorioz zatitu egin zen. Batetik, Kolektibo gisa zeintzuk eskubide aldarrikatu behar genituen, eta zeintzuk ez, izan genuen eztabaidagai. Ezkontza eta adopzioaren inguruan izan ziren tira-birarik handienak. Baina krisialdia ez zen jazo bakarrik eskubideen inguruko eztabaidengatik, gizabanakoaren eskubideak zein kolektiboak liskar handien ardatz izan ziren arren. Tirabira handiak izan genituen, baita ere, lesbianismoa politikoki kaleratzako estrategien inguruan. Kolektiboko zati batek –ni neu tartean– bat egin nahi zuen gurea bezalako beste mugimendu sozialekin, besteak beste gay mugimenduarekin.

Bilbon, esaterako, EHGAMeko mutilekin hasi ginen hainbat gauza egiten. Lankidetza horren ondorioz, Kolektiboaren barruan lubaki ederra sortu zitzaigun gako lesbianioa kaleratzeko genituen ikuspegi ezberdinen inguruan. Guk, aipatu talde zehatz hori osatzen genuenok esaterako, politikoki gehiago eragin egin behar genuela uste genuen. Lesbianen zein emakumeen arteko elkartasunaz gainera, lesbianen, gay gizonen, prostituten edo transexualen arteko elkartasunak ere sustatu eta bultzatu nahi genituen. Eginkizun hori ezinezkoa zen Kolektiboaren barruan garatzea eta erakundetik alde egitea erabaki genuen. Une hartan hasi zen *Agerian* izeneko lesbianen taldearen ibilbidea, epe laburrean izango bazen ere, eragitea lortu zuena; eta une horretan hasi zen, baita ere, *Aldarte, lesbiana, gay eta transexualen arreta zentroa*ren ibilaldia. Gaur egun hor nabil lanean eta hori izan da nire bizitzaren egitasmorik aberatsena.

Txantxetako Feminismoaren Topagunea

Borroka aipatu eta badirudi egunero genbiltzala liskarrean. Ezta hurrik eman ere! Egia da oso urte gogorrak izan zirena, latzak ere bai gure bizitzaren hainbat alorretan. Baina ez da egia txikiagoa gehiagotan ibili ginela pozaren pozez negarretan baino. Erandio eta Astrabuduako emakumeen taldearekin hasi ginenean kuadrila ederra osatu genuen. Lanerako ez ezik, olgetan eta txantxetan ibiltzeko irrikitan egoten ginen. Zentzugabekeria ugari egin genituen, *Txantxetako Feminismoaren Topagunea* bezalakoak. Gordeta ditut oraindik ustezko topagune hartarako prestatu genituen agiriak eta txostenak. Taldekideak Eara joan ginen, Lagako hondartzara, eta bertan ipini genituen kanpin-dendak. Harean biribilean jarri eta hor hasi ginen balizko feminismo bitxi horren inguruko eztabaidan. Barre baten ibili ginen benetako bilkura feministetan izaten ziren haundi-maundikeriak antzeratzen genitula. Ondo pasatu genuen gero, asteburu hartan.

Beste behin Bizkaiko Emakumeen Asanbladako lau kide punkiz jantzi eta gisa horretan joan ginen batzarrera. *Vulpes* taldeko (*Me gusta ser una zorra* –Puta izatea atsegin dut– kantagatik jazarpen eta zentsura ofiziala pairatu zuen neska punkiez osatutako musika taldea) nesken antzera jantzita agertu ginen Asanbladak edozein ostiraleko edozein arratsaldetan egin behar zuen batzarrera. Ezin izango dut sekula ahaztu batzarkide batek baino gehiagok ipini zigun txundidura aurpegia. Bilerako inor ez zen konturatu nortzuk ginen eta bileraz erratu ginela esan eta gu aretotik kanporatzen saiatu ziren. Horrek ondotxo erakusten du zein zurrunak ziren garai hartako feministak: emakume ez oso anitzak, eta lar politikoak bai jazkeran bai gauza gehienak egiteko moduetan.

Hori horrela zela onartu arren, ezin dut onartu inork esatea feminista guztiak itxusiak eta umore txarrekoak ginenik. Uste hori ustela zen oso, aurreiritzi hutsa oso errotuta zegoen arren. Nik barru-barrutik ezagutu nuen mugimendu feminista eta jakinaren gainean nago Asanbladan bazirela emakume eder asko eta talde bezala beti egon ginela olgetarako prest. 80. hamarkadaren urte haietan ia gauero ordu txikietan etxeratzen ginen, hiruak arte edozein taberna zulotan egon eta gero. Orduak ematen genituen parrandan, zoro moduan edaten eta dantza egiten. Horren zoro ibiltzen ginen, deskuidoan neska-laguna galtzeko zorioan izaten baiginen. Ni neu, hala ere, gehiago naiz *Convento* tabernaren garaietakoa.

Lesbiana politikoak eta gainontzekoak

Urte haietan baziren Bilbon neskatan egiteko hainbat taberna. Baina ez ziren espreski lesbianen tabernak. *Convento* izan zen emakume lesbianoi zuzendutako lehenengoa. Hor elkartzen ginen kaletik ibiltzen ginen emakume lesbiana guztiak. Egunero joaten ginen *Convento*ra. Bertan batzen ginen gu, Kolektiboko lesbiana feministak, inon sartuta ez zeuden gainontzeko lesbianekin. Gu zurrun samarrak ginen: Mundua, gure ikuspegitik, bitan banatzen zen, borrokan sartuta geundenak eta gainerako guztiak. Gu eta haiek, ez zegoen besterik. Gutako baten batek beste taldeko inorekin ligatzen zuenean, akabua zen hura. Guretzako aurrerapauso handia izan zen Kolektiboko neskak taldekoak ez zirenekin ligatu ahal izatea. Garaipen txiki bat izan zen hura. Urte batzuk behar izan genituen baina, urrats hori emateko.

Zaila egin zitzaigun pausoa ematea. Futbito txapelketa mordoa antolatu behar izan genuen tabernatik kanpo emakume haiek ezagutu eta gure artean nolabaiteko harremana sor zedin. Txapelketa horietan *Convento*n izaten ginen ia emakume guztiak lehiatzen ginen, bosnako taldeetan. Futbola bakarrik ez, festak ere gure arteko harremanak estutzeko oso aproposak izan ziren. Festa dezente egiten genituen, eta oso onak. Horren onak festak izan zirela beti Lesbiana Feministen Kolektiboaren ezaugarri nagusietako bat. Festak emakume guztientzat egiten genituen, ez bakarrik lesbianentzat. laioak ginen emakumeak dibertitzen. Hamaika festa eginak geunden, halako batean nazkatu ginen arte. Beti gertatzen zitzaigun berdina, egundoko festaren ondoren betiko lauak geratzen ginela goizeko bostak arte dena garbitzen eta txukuntzen. Leher eginda geundela bata besteari begiratu eta protesta egiten genuen:

- *Hara zein ondo! Den-denak ligatu dute, ohean goxo-goxo egongo dira honezkero eta gu hemen, haien zerrikeria guztiak garbitzen.*

Festak *Txoko Landan* izeneko egoitzan egiten genituen. Gaur desagertuta badago ere, hura izan zen gure belaunaldiko jende askorentzat gure txokoa, askatasun osoz jarduteko toki berezia. Gu larunbatero joaten ginen, asteburutan gay eta lesbianentzako irekita egoten baizen. Mutilekin txundituta geratu ohi ginen gu, berehala desagertzen zirelako. Gure ustez argi zegoen zer gertatzen zen haiekin: gay mutilak norbaitengan begia ipini ahala, ligatu eta alde egiten zuten txortan egitera. Mutilena adierazgarria zen oso. Neskak izaten ginen *Txoko*tik ateratzen azkenak. Guk ezin izaten genuen berehalakoan ligatu. Inor ezagututa ere, ez ginen lehenengo gauean oheratuko. Inoiz ez. Bigarren edo hirugarren gauean izan zitekeean, baina inoiz ez harrapatu

eta… *jo eta bertan su!* Guk emakume batekin oheratzeko, erakarpen fisikoa baino askoz gehizgo behar izaten genuen. Nazio mailako koordinadorak Bilbon egiten zirenean, Nafarroako neskak gurekin ernegatu egiten ziren. Haiek zuzenak ziren erabat eta tupust egiten zuten arbuio ezin zuzenagoarekin:

- Lotsabako alena, zuzenegia haiz hi!.

Eta nafar gajoak gu limurtu nahian zebiltzan, besterik gabe: *Zer, joango al gaitun?* Mutilen modura artez zebilen emakumezkoak jai zeukan gurekin. Esango nuke gaur egun ere berdin gertatzen dela, pentsaezina dela neska bat ezagutu eta gau horretan bertan oheratzea. Ez bada, jakina, neska aurreratuegia ez ezik, ausartegia ere badela.

Zentzu horretan, onartu beharra daukagu feministok aniztasun sexualaren aterkia asko ireki genuela herri honetan. Egia da sexu askapenaren alde egin genuen lana izugarria izan zela. Baina egia da, baita ere, puritano-ospea gainetik kendu ezinik egon garela aspaldi. Ondo irabazitako ospea, bestale. Guretzat, emakume lesbianontzat, esanguratsuagoak ziren ferekak, begiradak eta maitasun joerak larrua bera baino. Horrenbeste, maiz fisikoagoak ziren edo sexu aldetik zuzenagoak ziren emakumeekin oso zakar jokatu dugula. Ahazteko dauzkat Asanbladaren baitan sarketaren gainean izan genituen liskarrak! Garai batez benetako feminista izateko sarketa arbuiatu beharra baizegoen. Ezingo dugu ukatu jarrera hori nahiko puritanoa eta asexuala ere bazela gure aldetik. Horrenbesteko garrantzia ematen genien ferekatzeari, laztantzeari eta maitasunari, gutxietsi egiten genitula larrua larru truk ere izan zitekeela aldarrikatzen zutenak. Halakoak izan ziren, salbuespenak salbu, 80. hamarkadako lesbianen arteko harremanak.

Bilbon, 2016ko maiatzean